



# Urte olinpikoa

**ELECTRICIDAD**  
**ARREGUI**



2013 zoriontsua opa dizuegu!

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

[www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)

Orain  
sukaldeko tresneria  
salgai!



Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521



# Maite **B**ETELU

2013 zoriontsu eta alaia opa dizuegu!



- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliaria zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzen administrazioa**

Aralar plaza 4 behea • Lasarte-Oria  
Tel.: 943 364886 • Faxe: 943 372117

WIKUGERAKIN

Ttakuneko kide guztien  
partetik



txintxarri

amaraun



EGUBERRI ETA  
URTEBERRI ON GUZTIOI!



Urtarrila



Martxo



Maiatza




Uztaila



Iraila



Azaroa



Otsaila



Apirila



Ekaina



Abuztua



Urria



Abendua





# Otsaila

## Txintxarrik 1.000 ale, itxura berria

**13** "Beharrezkoa zen Txinbarri sortzea": Txikun Kultur elkarrteia 1991. urtean sortu zen. Oinarrizko, zenbait proiektu garatzeko asmoa zegoen elkarrtearen baitan eta proiektu horietako bat zen eskulari hutsaren herriko alfabetera. Sebastian Kerejeta, garai hartan elkarrteko lehen-dakarrak zaidatu moduan "Gure herriko informazioa soilik DVko kronika eta Lasarre-Oria aldizkariaren bitartez jasotzen genuen garai hartan, baik gaztelera", ahalegin askorikin aurrera atera genuen Txinbarri eta 1993. urteko urtarirainan gauzatu zen. 1.001. aleak itxura berria aurkeztu zuten eta osailariren 21ean Txinbarri.info berria aurkeztu genuen.

trikilari eta pandero joleak ere girotu zituzten gure herriko kaleak.

**06** Asobakarreko langileak eta CLECE konpainia dira Udalenaren laguntzaz: Lasarre-Oriako Udalak, Asobakar zahar gogozko langile eta CLECE enpresaren arteko negoziaketak eta akordioa ahaldieratu zituen. Honen bitartez, 2012 urtean atzerapen plusa eta soldatak hilaibete hauetan enpresa komiteak izan duen jarena salatu du.

**07** "Murriztu Zirt edo Zait" eskolatan: Semeak Murriztu eskolatan lehen hezikuntzako eskola gutxi zuzendutako komunitaritzako kanpainan izan zen. Sasoan herriko Saso eta Landaberri eskolatan burutu zituen.



**02** Elura eliatuan: Iagarritako tenperatura hotz eta elurra iritsi ziren. Goizetik hasi zera maza-maza elurra botatzaren eta herriko kaleetan iguerdiak kolore zuria zena nagusi.

**03** Giababimena, euskaraz abertzaleak sarri du: Mugira eta Izarra autoeskolak dira giababimena aldi teorikoa euskaraz abertzaleko aukera eskaintzen dutenak. Bi hauetan 2011. urtean euskaraz abertzale gaitu zuten artean, sarrituak Elisabete Marikorena eta Andoni Urdangarin izan ziren. Biei matrakula eta azterketa teorikorengatik ordaindurakoa bueltatu zitzaienten.

**04** Herriarrak santa eskean: Eguerdik txarrit aurre egiteko, herriar ugari animatu zen Santa Agedari oles egitera, Euskal Herriko eguna ospatu eta bide batez, ohihura zaharrik gortetzeko asmoz. Ohiko makil dotinez gain, bertsoari,

teko. Mozioa onartu izan zen EAJ-Bildu eta Plaiatimokoen aldeko botoekin eta PSE-EE eta PP-ren abstentzioa.

**15** Bi milioi euro itzuli behar ditu Udalak: Azken udako Foru Aldundiak aurre-kusierakoa baino diru sarria gutxiago izan duenez, 2009 eta 2011ko desfasatuen arteko Udalak bi milioi euro itzuli behariko zituela adierazten zuten Pablo Barrio alkateak eta Estibuz Alkorta Ogasun sailako buruak. Ageraldia egun zuten egoeraren jarraitasunaren berri emateko baina araztu itzuleko mekak diruak esanaz Lasarre-Oria konpromisoari erantzuteko moduan dela nabarmendu zuten.

**17** Larrafaga eta Egi, Euskadiko kateak: Jobernari eta junior mailako Euskadiko txapelketa izan ziren Dorostoin. Irati Larrafaga eta Maia Egi lotu zuten Euskadiko txapelketa titulua. Maider Rekondok pisu jaurtiketa proban izan zen bigarrena. Enzet Busto ere izan zen txapelketa proban. Ane Galardik luzera jautsian eta jautzi hirukoitzean lotu zuten dominak, zilarrezkoak eta brontzezkoak hurrenez hurren.

**18** Ibarburu Euskadiko txapelketa: Buntzarzaldea IKTIko Eskadiko Nesuko txapelketa eta Kirok Euskarazuneko bigarren jardunaldian

**UGARI Supermerketa**  
URTEBERRI ON!  
Igande eta jai egunetan ere goizez irekita!  
Ola kalea 6 bidea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 36 21 60

**BIZKER IMPRESION DIGITAL**  
2013 zortzietsua opa dituztegu!  
• Inprimategi digitala  
• Finkak, Finkak, Alaburak Zehaztasunarekin, Kartografiarekin  
• Formatu handiko kardiak eta Argazkiak  
• Kanpoko eta barruko errotulazioak  
• Argazkiak, Finkak, Finkak, Finkak, Finkak  
Getoloki Kalea, 9 • Tel.: 943 36 20 61 • Lasarte-Oria



## Bilerak udala eta herritarren komunikazioa hobetzeko

**22** Udalak auzoz-auzoko bilera hasi zituen: Herriaren parte-hartzea sustatzeko asmoz udalak bilerak auzoz-auzo egungo dituela aurkeztu zuten osailariren 22an. Alaitz Mendizabal parte-hartze sailako buruaren hitzetan "udalak auzo ezberdinetan iritsi nahi du herriaren parte-hartzea sustatzeko". Horretarako udalaren eta herritarren arteko komunikazio bide zuzenagoa bermatzeko, bilera ireri hauek burutuko zirela aurreratu zuten. Bilera prozesua hiru zatitan egungo zeta eta herriko auzo gutzietan. Herriarrak hauekin parte hartzea delitu zituzten euren kezka eta iritzirik plazaratzeko gune izan zitezkeen bilera hauek.


**17** Euskal inauterietan: Udalenaren 30. Euskal Inauteria aurtun 30. aldiz aterata zen herriko kaleetan barrena. Urteurrenaren ospatzeko urte hauetan konpartzak atera dituen jantzi guztiak berriro erabiltzeko asmoz udalak Felix Telleria antolatzailearekin batera datorren urteko aurrera Euskal Inauterietan Udalenaren esku utziko dituela jakitera eman zuten.

**24** Bodolaguak Kultur Etxean: "Bodolaguak"-ikusizkoaren erantzuleak, Mikel Pagadizabal, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburu, aktoreak Anartz Zuzuzak zuzenduta. Umorezko antzezlanen egungo hainbat gai joratzen dituen.

**21** Saharar herriariekiko elkar-etsaia adierazi zuten Udalenak: Azken Udabazarraren hamazazkoaren egora azaltzen zuten mozioa atera zen aurrera alderdi gutxi-entzuzkoekin.

**24** Martinez eta Garrido Espainiako gazteak: LOKEKO jendokoa gazteak Gijonen izan ziren Espainiako sango txapelketa. Espainiako bi titulua eta zilarrezko bi domina eskuratu zituzten. Esteban Martinez eta Mario Garrido, bi zilarrezko domina eta zazpigarren postu bat eskuratu zuten. Josu Olmosok zilarrezko domina eskuratu zuten ere. Renzo mailan, Amaia Cuntelak txapelketa eskuratu zuten.

**26** Andaluzean Eguna: Andaluzean Eguna handia da osailariren 28a izan ere, ererleerendun bidez 1980. urtean era-



**27** Sogin jaien ibilbidea, finantziak: Sogin jaiak eztabairatu eta hausmarketa prozesuak abiatu zuten. Eztabaidaren emaitzak plazaratu zituzten. Harek aurkeztuko, bideo emanaldi egin zuten Xirimirin eta sorreratik gaur egunera arte jaien antolaketan aritu diren iritzirik bildu eta urte urte gertatuakoa laburtzen zuten argazki galeria ikusi zituzten.

**28** Zuhaitzaren eguna: Sasota eta landaberriko 120 ikasleek zuhaitzaren eguna ospatu zuten. Golegiko Gainean elkar-tut ziren herriko eskolekiko umak eta

bertan landatu zituzten hainbat pago eta haritz. Guztira 130 zuhaitz landatu ziren. Bigarren saio batean, eskualdeko ikasleek beste herriarrekin batera beste 75 haritz eta 75 pago landatu zituzten eremu berean.

**28** Herria mugimendua sortu: Euskal prozesu eta ihesbide politikoko pausoz pauso elkar-erantzuteko bide zabalitzaren alde lan egungo duen Herria mugimendua aurrera zuzentzen. Lehen heburuen presioi erantzuten zaizkeen salbuespen neurriak indargabetez 12anongo zela azaltzen zuten taldeko kideak, gaitxo dauden presoak eta zigor osoa edo hiri laurdenak bete ditzutenak askatzea alegia.

**29** Ekoinzomaldia: Munduko hainbat tokilako ingurumen meategi, goi-tenetso argi-ndar linea, gasa eramateko hodi edo edateko ura-iragan ingurumen sortutako arazoak ezagutu ahal izan ziren bi eguneko saioetan. Guztira lau filma ikusi ahal izan ziren.

2013 ALAITSUA OPA DIZUEGU!  
**LASARTEARRA**  
KIROL ETA KULTUR ELKARTEA  
2013 ALAITSUA OPA DIZUEGU!  
Erribera kalea 10, atzealde • Tel.: 943 362997 • LASARTE-ORIA



# Martxoa

## San Pedro jaiak antolatuzeko prozesu irekia

**13 Herriaren parte hartzea San Pedro jaien antolaketan.** San Pedro jaiak antolatuzeko lau bilera ireki egin ziren martxoaren 13tik 16ra. Herriariak tesaroko kultur ekitaldiak erabiltzeko aukera izan zuten. Udaltzako batzordeak jaiak antolatzeko parte hartze prozesu berria, inauterien antolaketan izan den hondakoa lehen esperientzia, eta Taxo Arizabalaga zinegotziaren zuzen zuzen- zuzenaren bitartez, "forotaria jende ugari gerturatu zen eta aste-bakera beretan paregabe bat antolatu lortu genuen" beraz bide hori eustea erabaki du Udaltz.

**01 Ostadar mendi sailaren bloga martxan.** Ostadar mendi sailak blog berria aurkeztu zuen. Honetan aurkezten dituzten argazkiak informazioa eta interesgarriak izan daitezkeen besteak beste albeste eta berriak jasoko zituztela azalzen zuten. Horretaz gain, ibilbidia antolatzeko eta bazkideen esperientziak jasoko dituen atala ere sortu zuten.

**01 Lizaso enisean Gipuzkoako txapelketa.** Oihane Lizaso lasarteartiar gaztea infantrial mailako Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen. Finala Alicia Gonzalez-en aurka jokatu zuten.

**02 Logo berria Kukularentzat.** Kukularen antzerki eta dantza eskolatik logo berria aurkeztu zuten. Lehiaketan gutzira 23 izan dira ikasleek parte hartu eta lehiaketa honetara aurkeztu direnak da azkenean Azkoitiko Maite Urrutik eraman du 300euroko saria ikusi.Oi diseinatu esker.

**04 Civicos izan zen azkenaren Lilatolain.** Donostian 23. honetan 47 herritarrek parte hartu zuten.

**04 Arzetatik Zuzenien igorera bertikala proba.** Endrika Gantzia herritarrek zarpigaren postua egin zuten.

**06 Amaia Gonzalez txapelketa Europar.** Salsa eta dantza konbinatutako sariak lortu zituen Lasarte-Oriako dantzariak Formentosen burututako Europako Areato Dantza Txapelketan. Bertan bere ohiko dantza bikotearekin parte hartu zuten Mari Orbeagozorenkin. Bosgarren urtez Europa mailako dantza sariak lortu ditu lasarteartiarak.

**07 Baso txurriaren babesean.** Proiektuak antolatuz zuten Ostadar SKTkoek Manuel Lekuona. Honetan Poto Gomezbategi eta Belen Ezkizaren "Baso txurriaren babesean" iraupen eskari burtuzko lana erakutsi zuten.

**08 Rosario Galanek 100 urte bete zituen.** Victoria Vicu- nien alargunari Altsobakar egotzen testa handia egin zioten hain egun berezia behar bezala ospatzeko. Opari asko jaso zituen eta hunkituta kandelak tizali zituen.



**08 Martxoaren 8a, ospakizun eguna.** Udaltz. Makumearen Zentro Zibikoarekin elkarlanean beste urte batez egitarau

beretza antolatu zuen Emakume langilearen eguna ospatzeko.

**11 Kobazuloak eta sorginak.** Onatiz taldea Sara eta Zuga- ramundi inguruetan izan zuten 84 herritar izan ziren hakekin kobazulo eta sorginen istorioak ezagutu zituztenak.

**11 LOKEK Espainiako txapelketa.** Borroka olimpikoko Espainiako txapelketa irabazi zuen Jonior mailan. Amaia Curielek brontzezko domina lortu zuen eta eskolako txapelketan Oscar Garrido gazteak ere txapelketan postua lortu zuen, 85 Mito- koin mailan.


**12 Miriam Infante Espainiako selektorea.** Miriam Infante gazte lasarteartiarra Eusko Espainiako selektoreko taldean izan zen eta Altopia taldean egiten ari den lana sartu zuten era honetara.

**12 Garrantxo Formakuntza Zentroa Lasarte-Orian jarrezko eskara egin zen.** Garrantxo Formakuntza, Ikerka eta Garrantxo Zentro Integrala Lasarte-Orian jarrezko eskara egin zuten Gasteizko Gobernuak Madrildiragorri eta eskara horriekin bat egiteko proposamena ezabatu duen Lasarte-Oriako Udalaren plenean, PSE-EK aurkeztu zuten Zentro hori bultzatzeko mozioa.

**13 Buruntzaldeko udalen enplegu arloko elkarlanean.** Buruntzaldeko udalen lanean ari diren guztien baliabideak erabiliz lan egiteko, industria eta turismoa baliabidera berrantolatu asmoz.

**16 Act of God.** Asier Zabaleta damuzararen Erza taldeak "Act of God" lana eskaini zuen. Erlijioaren gaita jarraitu zuten lau dantzari, eta lana prestatzeko Asier Zabaleta dantzariaren batera. Ander Lupus aktorea, Xabier Etxezia musikaria eta Herkaltz Cano idazlea arduratu ziren buruzkoen hurren dramaturgi, musika eta hitzetan.

**18 Euskal Krosa ospatu zen.** Landaberri ikastola antolatu, Altsobakarren burutu zuten Eneko Kastroren onomazeko krosa. Landaberri ikastola urte antolatzen duen krosaren neska multu ugari hartu zuten parte. Lasterketa bukatzean, domina eta edaria banatu zitzaizten guz- tei.



**21 Fortunata Zuzenbarrek 100 urte.** Zabaleta auzoko bizilagunak sende eta lagun- nek inospatu zuten bere urtebetetzea. Bizilagunek ere omenalditoxoa egin nahi izan zioten hain egun berezian.

## M-29an, greba orokorra

**29 M-29 Greba Orokorra.** Euskal Herrian gehiengo sin- dikatuek deitutako grebak jarraitzen zabalda izan zuten. Lasarte-Oria Itxi Itxuraren erabakia izan zen. Herrian denbada eta tabernak itxi mantentzen zirenean osoan. Ezker alderiaren antolatutako kobe karabanak 8:00etan hasi zuten bere ibilbidia herriko kaleetan barrena. Mithelgino produktua geldituta zegoela adierazi zituzten langileek izan ere, bertako boz sindikatuak babesu zuten Greba Eguna. Hala ere, tenisoi- unek izan ziren behar gutxiak langile batzuk lanera sartu nahi izan zutenaren. Erzantzak lagundu behar izan zituzten pikeeten bitartean.

**18 Bigarren eskuko azoka izan zen.** Bosgarrenetik antolatu zuten merkatu 25an marcos bigarren eskuko merkatu azoka, hiri- ondakinaren sorrera prebentiu eta berrerabilera bultzatu asmoz.

**19 Inchausti-Osaigiko langileen aldarrikapenak.** Herriko itxi eta 27 langile kalekatu zituztela jakitera eman zuten. Harek salatzeko langileek protestak burutu zituzten Errekaldeko dendaren sarreran.

**20 Olatuen erorka.** Olatuen izan zen Sumarko mako- koinak antzerkiaren bultzakapen berrantolatu. Kistalezko txekuan gertatu den gizona ikusleko aulera izan zuten herritarrek eta euren elkarlankidat- ezituen. Olatuen erorka izena eman ziotzen kampaian Oihalk Ator biziak- izen ikastola lortu behar zuelako.

**22 Udaltop hasiera arrakasta- tsua.** Udaltop txapelketak hasi zuten udaltop egunaren urte egin ziren Manuel Lekuona. "Nolako da gure (udalaren) hizkuntza-politika? Begiratu, mesedez, euskara sailetik kanpo!" udalaren hizkuntza-politika gaitaratu zuten. Topaketa espero baino jen- tetsuago izan zen, ia 200 profesional eta antolatzaileak pozik azalzen ziren.



**29 Lapurtea Casa del Pueblo-n.** Herriko alderdi sozialista- ren egotzen sartu ziren lapurtera egitera. Tabernan zuden makinetako dirua eraman zuten baita telebista ere.

**30 Pianoa eta ahotsa uzantzur.** "Kantagintza" ikuskizuna eskaini zuten Iñaki Salvador eta Ainara Ortega musikariek ostiral- iluztean Manuel Lekuona kultur- eremuan. Kulturen giza eremuan baten barnean kokatuta zegoen kontzertua eta beraz, dohainek gogatu abal izan zuten herritarrek bi artisten ikuskizuna. Euskal talde historikoan hainbat bertso- jo zituzten.




**30 Txapelketa gozoa Okendo- plazan.** Sukaldaritzan murti- plazan zuten ordu batzuetan Gazte Klubeko gazteok. Okendo- plazan postre txapelketa egin zuten. Harek prestatzeko osagai asko erabili ahal izan zituzten baita soilik mikrohina. Saria banatuz arduratu ziren Taxo Arizabalaga eta Alaitz Mendibabal zinegotziak. Harek epaile- lanak egiteko haurren postre guztiak dastatu zituzten.




**30 Semblanteren 20. urteurrena.** Herriko Sem- blanteren 20. urteurreneko elkartu berezia hasi zuten elkarteko bazkideen laguntzarekin. Argitaratutako "20 abts- entre folklore y fogones" liburuaren aurkezpena egin zuten eta lanurtean Surob "andalu" ikuskizuna antola- tu zuten Manuel Lekuona kultur eremuan. Lagandeko elkarlanean egotzen bazkari herrikois egin zuten. Osean "Amigos del Sur" taldearen emanaldietan.

**23 LAB-ek deituta, manifesta- zio jendetsua Lasarte- Orian.** Jendetsua izan zen martxoaren 29ko grebarako deialdia luzatu nahi izan zirenean herritarrek.



**22 Udaltop hasiera arrakasta- tsua.** Udaltop txapelketak hasi zuten udaltop egunaren urte egin ziren Manuel Lekuona. "Nolako da gure (udalaren) hizkuntza-politika? Begiratu, mesedez, euskara sailetik kanpo!" udalaren hizkuntza-politika gaitaratu zuten. Topaketa espero baino jen- tetsuago izan zen, ia 200 profesional eta antolatzaileak pozik azalzen ziren.



**Garakari TABERNA**

Eguneko platera  
Karta  
Bokatak  
Pintxoak  
Razioak  
.....

Gosariak  
Etxeko postreak  
Tostadak  
.....

URTEBERRI ON!

Pintore 1. behera  
Tel.: 943 374 404  
20160 Lasarte-Oria

SUKALDEKO ORDUTEGIA:  
eguerdiko eta ostiral eta larunbat gauean

2015 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU!

**MADD MEIER**  
KARROZERIAK

ORDEZKO IBILGAILUA  
Bankada elektronikoa - Kabinan lebeduna  
Informazioa: 943 366930

Asguru Kompania  
guztiek in-  
benturatu  
zerbitzu

ORRI  
KIDEA

Oria etorbidea 10 - Brunet pol., 20-21  
20100 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 366931  
maddme@iservicesmail.com

**COPILASARTE**  
Urteberrion guztioi!

ESTANPAZIOAK  
FAX-ZERBITZUA  
FOTOKOPIAK

Kale Nagusia 34 - Tel.: 943 366930  
Fax: 943 366931 - Lasarte-Oria





# Maiatza

## Pirritx, Porrotx eta Marimotots Manuel Lekuonako oholtzan

**12** Saioaren harira, festa itzela: Egun osoko festa arrakatsua izan zen haur, gazte zein helduentzat herriko pailazo eta eurek ekarritako lagunekin. Udalak lehenengoz gobidatu zituen herriko pailazoak bertan ikuskizuna egitera. Hau dela eta goizetik hasita, giro paregabea jarri zuten herritarrek Tolosatik etorritako Bonberenea Txarangarekin batera egindako kalejiran. Eguerditik aurrera berriz, down syndrome-  
dun neska-mutilek osatutako "Motxila 21" taldea kontzertua eskaini zuen Okendon, "El Drogas"-ekin. Arratsaldean, pailazo-  
en "Zazpikoloroa" ikuskizunaren bi emanaldi izan ziren eta gauean, Deabru Beltzak taldearen "The Wolves" kale-antzerkia.



**03** Badator Euskararen Maratoia! Villa Mirentxun aurkeztu zen VIII.Maratoia. Zortzikotea ezagutzeko parada izan zen eta honekin batera gure kaleak beteko zituen leloa eta irudia. Aurkezpenean parte hartu zuten Lasarte-Oriako elkarte guztietako ordezkariak baita bestelako gizarte eragileak ere.

**03** San Pedro Jaien kartela aukeratzeko lehiaketa martxan. Maiatzaren 18ra bitartean A3 tamainan nahi den erara egindako lanak aurkezteko aukera zabaldu zuen udalak. [www.lasarteoriarasarean.eu](http://www.lasarteoriarasarean.eu) gunean emandako iritziak aintzat hartuko ditu Jai Batzordeak garailea izendatzeko. Irabazlearentzat saria 300 eurokoa iragartzen zuen.

**05** Amaraun jaialdi paregabea. Guraso, gaztetxo, begirale... Den denak primeran pasa zuten Loidi-Barrenen antolatutako Amaraun Jaialdian. Goizetik puzgariak, giza-futbolina, tailerrak eta hainbat mahai joko ezberdinez gozatu ahal izan zuten gaztetxoek. Makarroiak bazkaltzeko osteratxo bat egin eta arratsaldean festak jarraitu zuen besteak beste, magia ikuskizuna, mozzorro desfilea eta txokolatada.



**05** Auzokoarekin auzolanean. Udaberriko bertso-saio berezia izan zen Manuel Lekuona kultur-etxean burutu zen. Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Ane Labaka eta Unai Muñoa bertsolariekin batera, herriko hainbat talde eta norbanakok parte-hartu baitzuten emanaldian. Dantza, antzerkia, musika, kantua etab. izan ziren emanaldi jendetsuan.

**06** Giro ederra Azkorten. Santa Krutz eguna ospatu zuen Lasarte-Oriako Azkorteko ermitan. Herritar ugari izan zen urteroko hitzordu honetan.



**07** Gizarte balioak herritarrengan sustatz. Danok Kide elkarteak gizarte balioen inguruko "Balioetan Hezi" IX. Jardunaldiak antolatu zituen. Lau egun iraun zuen hitzaldi zikloak Manuel Lekuona kultur-etxeko hitzaldi aretoan

**08** Amaia Gonzalez Caballero dantzaria sariak pilatzen. Erkidegoetako txapelketa garai honetan, Kantabriakora aurkeztu eta lehen saria ekarri zuten. Erkidegoetako txapelketen zirkuitu horretan bat irabaztekotan, gastu guztiak ordainduta izango lituzke bikoteak datorren urtean Europa mailako txapelketan parte hartzeko. Beraz, Kantabriakora irabazita ziurtatuta dute Europakoan 2013an ere.

**08** Aldi baterako enplegu erregulazioa Michelinen. Michelin enpresak Lasarte-Orian duen tailerreko langileei aldi baterako enplegu erregulazioa jakinarazi zitzaizen. Lasarte-Orian 600 langiletik 500 ingururi ezarriko zaie neurria maiatza eta iraila bitartean jakitera

eman zuten. Motoen pneumatiko produktzioa udan 17 egunetan etengo da.

**08** Hiru zauritu furgoneta batek eragindako suagatik. Hiru gizon zauritu ziren Sasoeta auzoan Citroen Jumper furgonetak su hartu ondoren. Gertaera Antxota kalean izan zen, Urdaburu plazatik gertu zegoen furgoneta aparkatuta eta Ertzaintzaren ustetan matxura batek eragindako su izan zen. Sua itzaltzen saiatu ziren hiru pertsonak zauritu zuten. 53 urteko gizona eta 21 urteko gizona gaztea eta 71ko beste bat. Bi hauek Donostia erietxera eraman zituzten zauri arinekin.

**09** Antzerki eta Dantza hamabostaldia aurkeztu zuen Kukukak: Kukuka Eskolako kideek Udal ordezkariarekin batera 10. Antzerki eta Dantza Astea aurkeztu zuten Manuel Lekuona kultur-etxean. Guztira 700 ikasle inguruk parte hartuko dute hamabostaldian eta 20 emanaldi baino gehiago egingo dira kultur etxean eta herriko Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetan.

**11** "La Lechuga" antzezlana: Glu Glu produkzioak-en eskutik Gorka Aginagalde, Gurutze Beitia, Mari Cruz Melgosa, Galder Perez eta Gabriel Ocina aktore ezagunak izan ziren Manuel Lekuonako oholtzan. Martinez familia izan zen protagonista. Koman bederatzita urte daramatzan aitaren urtebetetzea ospatzeko elkartzen da familia euren harreman txarra nolabait ezkatuta nahian. Tentsio uneak biziko dituzte protagonistek izan ere, euren arteko arazoak azaleratuko dira.



**14** Lasarte-Oriako danborrada irudietan: Lasarte-Oriako danborrada elkarteak 1947tik egunera arteko argazki erakusketa osatu zuen Manuel Lekuonan. Honetan San Pedro jaietako eta herriko elkarten urrezko eta zilarrezko ezteietako 300 irudi baino gehiago ikusi ahal izan ziren. Argazkiekin batera proiektzio bat, danborradako jantzi, danbor eta kupelak ere ikusgai jarri zituzten.

**18** Antzerkilari gazteen trebetasuna. Kukuka antzerki eta dantza asteko lehenengo aste honetan, Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako eta institutu-  
ko gaztetxoek antzezlana ikusi ahal izan ziren. Hurrengo egunetan, antzerki gazte eta helduen eskutik, Shakespeare edo Saharako egoera taularatu ziren. Etxeko txikiak eta gaztetxoek taula ganean duten trebetasuna erakutsi zuten.


Honela, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen lagunak, kale gorrian bizi den lagun taldea, bidailari bereziak, Miss Sunshine txikia, printesa eta bere gorrea eta danbor magiko bat antzeztu zituzten. Landaberriko mimoak eta Zubietako taldearen "Basoan galdua" lana ikusi ziren. Gazteen taldeak, berriz, "Shakespeare osoa gutxi gorabehera" lana eskainiko zuen eta Joserra Fachadok zuzentzen duen helduen taldeak "Ixiltasunaren ahotsak" lana eskaini zuen. Honetan 36 urte hauetan errefuxiatuen kanpamentuetan eman diren egoera ezberdinak erakutsiko dituzte.





## Kukuka, hamar urte dantza eta antzerki

**26** Sekulako giroa izan zen Kukuka dantza eta antzerki eskolaren X. urteurreneko ospakizunetan: Hamargarren urteurrena modu alai, koloretsu eta parte-harzailean ospatu zuten Kukukakoek. Eguraldia lagun, desfile jendetsua egin zuten, Amalurren erromerian euskal dantzak dantzatu eta bazkari herrikoia egin zuten Okendon. Umeak, helduak eta baita zaharrak ere, denak aritu ziren dantzan herriko kaleetan Trikihotsen musikaz lagunduta. Arratsaldean kaleanimazioa, batukada, antzerkia eta hainbat musika talde izan ziren. Gauean, ordu txikietaraino luzatu zen festa The Garax, Gaueko Itzalak eta Trikihots taldeen emanaldiekin.



**19** Elkartasun olatua Okendon: Herriko plaza bete zen, karzelak hustu asmoz Herrirak Euskal Herrian antolatutako ekimenarekin. Okendo Plaza ez zen gutxiago izan eta presoekiko elkartasuna adierazi zuten lasarteoriatarrek egun honekin bat eginez. Goizean herri-kirolak izan genituen; eguerdian manifestazioa, Joxe Balerdiri Juankar Balerdiri presoren aita zendu berria omendu zutenekoa izan zen omenaldia eta mosaiko erraldoia egin zituzten.

**20** Buenetxea txapelaldia: Txindokiri 2-1eko emaitza irabazi zion final lehiatu baten ostean. Ostadar SKT-k antolatzen duen arteo-futbol txapelketan Buenetxea Txindokiri baino gehiago izan zen eta partidu lehiatu eta polit baten ostean 2-1 nagusitu zitzaion. Ligaxkako finalean berriz Naibanez irabazi zuten Truimoiren aurkako partidua (4-1). Aurtengo kirolari onenaren saria David Martin herriko korrikalariak jaso zuen eta Auzolan saria berriz, Jalgunekko begiraleentzat izan zen.

**12** Uribe, Rodriguez, Bruño eta Busto atletak Gipuzkoako txapelaldia: Kadete, jubenil, junior eta beterano mailako atletak Gipuzkoako txapelketako jardunaldiak izan zituzten Donostia eta Tolosan. Hauetan Jon Ander Bruño, Itoitz Rodriguez eta Eneritz Busto gazteak eta Santos Uribe beteranoa Gipuzkoako txapelaldia izan ziren. Itoitz Rodriguezek luzera jauzian, altueran eta 100 metroetan lehenengo postua eskuratu zuen eta Eneritz Bustok altueran. Ane Galardi bigarren izan zen luzera jauzian eta 100 metroko lasterketan. Maria Eugi, berriz, hirugarren izan zen luzeran eta laugarren 100 m.-ko proban.

**26** Ohorezko erregional mailan: Ereiten duenak fruitua jasotzen omen du, eta hori beti horrela gertatzen ez den arren, halaxe izan da oraingo honetan behintzat. Ostadar erregionalako mutilek denboraldi osoan egindako lan bikaina birlabildu zuten Michelingo berdegunean Zumaikori irabazitako partiduearekin. Gutxitan ikusi zen Michelingo zelaia horren beteta.

Zale asko euren bufanda eta bandera urdin-beltzak hartuta hurbildu ziren bertara eta animo sutuak eman zizkietan. Partidua bizia izan zen, ikusteko polita eta gol askokoa. Zumaian jokatutako joaneko partiduko emaitza (1-1) alde bazuen ere, Ostadarrek gogotsu ekin zion partiduari, giroa eta etxean jokatzearen motibazioa euren alde baitzeuden. Zortea lagun, 3-2koa sartu zuten Zumaikok bere atean 10 minutu faltan.



Maidar Rekondok pisua eta jabalainan zilarrezko domina lortu zuen. Jubenil mailako luzera jauzia proban Jon Ander Bruño txapelaldia izan zen. Eta Santos Uribe Zumeatarrak taldeko beterranoak 5000 m. martxa proban bere adineko irabazlea izan zen.

**21** Villamediana Gipuzkoako txapelaldia igeriketean: Gipuzkoako eskolarteko txapelketa eta alebin txapelketan domina uzta handia lortu zuten Buruntzalde IKT-ko gaztetxoek. Guztira, Gipuzkoako txapelaldia bat, zilarrezko domina eta lau brontzezko eskuratu zituzten bi lehiaketetan. Alebin mailan, Nahia Jie Villamedianak nagusitasun osoz lortu zuen lurraldeko txapela.

**24** Biodibertsitatea zaintzen. Lasarte-Oriako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako gaztetxoek herriko Biodibertsitatea aztertu zuten ikasturtean zehar. Eskolako Agenda 21 ekimenaren barruan egindako lana izan da eta honetan hainbat ondorio eta proposamen atera zituzten herriko biodibertsitatea mantentzeko. Hauek guztiak Udalean egin zen Udalbatzar berezian jakin arazi zizkieten udal-ordetzeari. Lehen Hezkuntzako gaztetxoek Udalbatzar aretoa bete zuten. Hirugarren urtez, Agenda 21-ean egin duten lana azaldu eta honen ondorioak azaldu zizkieten Pablo Barrio alkateari, Nerea Sanchez Ingurumena, Merkataritza, Osasun eta eta Hirigintza batzorde buruari eta

Boris Nogales Euskara, Hezkuntza eta Kultura batzorde buruari.



**24** Txintxarri zure smartphonean! Txintxarrik mugikorrerentzat aplikazio berria estreinatzen zuen m.txintxarri.info, Honi esker modu erosogoa irakurri daitezke gure albisteak, irudi galeriak ikusi eta agenda kontsultatu.

**25** Altzari "berriak" Okendon. Arkitekturako 50 ikasle, lau ostiraletan izan ziren Okendon. Udalak emandako material zaharra berrerabili zuten hiri altzariak egiteko. Oso balorazio positiboa egin zuen Nerea Sanchez zinegotziak arkitekturako ikasleek burututakoaz. Gainera, herritarrek hauek erabiltzen hasi direla ikusita, ekimena arrakastatsua izan dela azaldu zuen.

**26** Arroyo bigarren Gipuzkoako txapelketan: Bergaran, izan zen Gimnasiako Gipuzkoako txapelketan Aizpea Arroyo jubenilak bere mailako zilarrezko postua eskuratu zuen. Aizpea jubenil b mailan lehiatu zuen xingolarekin egindako lanean eta bosgarren izan zen borrekin. Senior A mailan, Garazi Gomez borrekin bigarren postua eskuratu zuen eta xingolarekin, berriz, bosgarrena.

**27** Dantzari txikien eguna: Goizean goizetik hasita, herrian barrena ibili ziren Kukuka eta Erketzeko dantzariak eta Urretxu eta Oretetako etorritako lagunak. Euskal dantzen errepertorioa goi-



## Zabaletako festek 25 urte bete zituzten

**28** Zabaletako jaiek 25 urte: Teresa sorginak eta Zabaleta auzoko lagunek aurten ospakizun berezia izan zuten, Zabaleta auzoko jaiek antolatzen hasi zirenetik 25 urte igaro direla eta. Horregatik, ekintzaz betetako astea antolatu zuten aurtengoan. Haurrentzako ekintzak burutu ziren astean zehar eta ostiralean, hasi ziren ospakizun handiak. Kukuka antzerki eta dantza eskolako kideek antzerkia eskaini zuten eta Teresa sorginari agurra egin zioten Porrotzek eta Dinbi banda batukadak. Dantza, antzerkia, afari eta bazkari herrikoiak, bertsolariak, Aimar Irigoien harri jasotzailea eta herri kirolak... denetarik izan zen urteurrena behar bezala ospatzeko.

tik behera errepasatu zuten eta ez zen agurrik, kalejirarik edota muxikorik falta izan.

Egun osoan zehar herrian ibili ziren gaztetxo denek erakutsi zuten dantzarako dohain paregabeak dituztela, erresistentzia bikaina edukitzeaz batera. Izan ere, egun guztian aritu ziren gelditu ere egin gabe dantzan eta antolatu zaizkien eguraldi txarrak beldurtzen bazituen ere, azkenean bero egin ziren.

Horrexegatik neka-neka eginda eta izerdi patsetan amaitu zuten goizeko saioa dantzari txikiak. Dantza egiteak sortzen duen nekezaz errekupeartzeko, Saustatxo eta Semblante Andaluz elkarrean bazkaria goxoa prestatu zieten kanpotik etorritako dantzariak.



**28** Herriarteko pilota txapelketaren hasiera: Herriarteko txapelketa hasi eta Lasarte-Oriari indarrak Donostiako taldearen aurka neurtzea egokitu zitzaion. Kade-te, jubenil eta senior mailako joaneko hiru partiduak Michelingo frontoian izan ziren. Ezin izan zuten ia ezertxo

ere egin Aritz Solano eta Xabi Prieto herriko bikoteak donostiaren aurka.

Erraztasunez gailendu zitzaizkien Julen Chiapusso eta Mikel Aranguren, 3-22ko emaitza argiaz.

Partidu bikaina jokatu zuten Axier Arteaga eta Ander Rekondo herritarrek. Nagusitasunez irabazi zioten Egoitz Labaka eta Imanol Cristobalek osatutako bikote donostiarrari.

**29** Zabaletako jaien hasiera: Auzoko festen 25. urteurrena izanda festa egitaraua luzatu nahi izan zuten. Horrela izanda haurrentzako ekintzak maiatzaren 29tik ostegunera bitartean burutu ziren. Haurrek ez zuten aspertzeko astirik izan jaien lehen egunetan. Zabaletako jaietan ohikoak diren haurrentzako jolasak, eta japoniar bonbak izan ziren egun hauetan egindakoak. Baina hauetaz gain, asteazkenean Kukuka antzerki eta dantza eskolako gaztetxoek haien antzezlanak aurkeztu zituzten eta ostegunean opari zozketa egin zuten.



**30** Gaztetxoak bertsoan trebe: Bertso saio dibertigarria eskaini zuten herriko bi eskoletako haurrek kultur etxean.

Ikasturtean zehar Unai Muñoa bertsolariarekin ikasitakoa erakutsi zieten irakasle, guraso eta lagunei.

Mozorrotuta eta pertsonaia ezberdinak antzetzuz taularatu ziren herriko eskoletako 4., 5. eta 6. mailako ikasleak.

Dagoeneko urte batzuk dira ikasgai bezala ahoz-kotasuna lantzen dutela Unai Muñoa bertsolariarekin eta hain juxtu bertsolaritzan duten trebetasuna erakutsi zuten oholta gainean.

Euren ahotan puntako gaiak izan ziren, besteak beste erregea eta elefantearen ehiza famatua, Mourinho, Frank de la jungla, Lady Gaga... "Hi bertsolari" saio txo bat ere asmatu zuten epaimahai eta guzti.

Ikusleen artean nagusi izan ziren txalo zaparrada luzeak eta irribarreak gaztetxoaren lan bikaina sarituz.



**30** Kukuka oso pozik hamabostaldiak eta jaialdiak izandako erantzunarekin: Kukuka antzerki eta dantza eskolak bere hamabostaldiaren eta jaialdiaren balorazio positiboa egin zuen. Bereziki azpimarratu nahi izan zuten Manuel Lekuonara dantza eta antzerki ikuskizunetara gerturatutako ikusle kopuru handia, hamabost egunetan 4.000 inguru. Bes-

talde, larunbateko jaialdia arrakastatsua izan zela azaldu zuten. Dantza eta antzerki eskolakoek euren lana erakusteko aukera izan zuten hamabost egunetan eta orokorrean dena ondo atera zela azpimarratu nahi izan zuten. Honekin batera eskerrak eman nahi izan zituzten ekintza guztietan parte hartutako ikasle, guraso eta herritarrei orokorrean.

## CASA EXTREMADURA

**2013 zoriontsua opa dizuegu !**

Adarra 4 • Tel.: 943 372375  
20160 Lasarte-Oria



VIRGEN DE GUADALUPE



# Ekaina

## Aste berdean ingurumena zaintzeko ekimenak

**06 Ekimen berdeak jasotzen:** Brigitarren plaza inguruan Aste Berdearen baitan, ekimen berdeen informazio postua jarri zen. Bertan jendeak ingurugiroa zaintzeko egiten dituen ekimenak jaso eta hauen inguruko informazioa eman zen. Gainera honetan jendeak Konpostagailuen inguruan informazioa eskatzeko aukera izan zuen. Herritarren ekimen guztiekin bilduma osatu zen erakusketa batean biltzeko. Horretaz gain ingurumena ahalik eta gutxien kutsatzeko asmoz, modu eraginkorrez gidatzen ikasteko ikastaroak burutu ziren gurean. Horrela kotxeek eragindako kutsadura murriztea posible dela frogatu ahal izan zuten hainbat herritarrek.



**01 PSOEn ustez urtebete galdu du herriak:** Alkatea aldatu zenetik Udalaren urtebeteko balantzea egin zuen Jesus Zaballosek Udalaren ezintasuna, ezjakintasuna, koherentzia eta gardenetasun falta salatu zuen. Lasarte-Oriarentzat atzerapausoa izan da ekainaren 11n Pablo Barrio alkate izendatu zutenetik pasatutako urtea, Udalean PSE-EEK duen Jesus Zaballos bozeramailearentzat. Bere iritziz ez da kudeaketarik egon eta argi ikusi da udal agintariaren ezintasun eta ezjakintasuna. "Hau larriagoa da gainera kontuan izanez gero agintean dauden hiru alderdiek gehiengo gutxiagoa dutela eta erabakiak hartzeko eragozpenik ez daukatala" esan zuen prentsaren aurrean.

### 07 San Pedro Jaie-tarako kartela aukeratu:

Uxune Iparragirre Argandoña herritarrek aurkeztutako lana izan zen irabazlea. Herriko jaietako kartela hautatzeko lehiaketa antolatu zuen udalak aurten berriz eta aurkeztutako guztien artean herritarrei bozka emateko aukera luzatu zitzaizkien. Bozka gehien lortutako bi lanen artean bat aukeratu zuten udal ordezkariak eta hautatutakoa Uxune Iparragirre, diseinu ikaslearena izan zen. Irabazleak oso pozik hartu zuen erabakia eta hala kontatu zigun.



Malagako taldearentzat izan zen. Lasarte-Oria saria berriz, Hilotz taldeak eskuratu zuen. 84 maketa jaso ziren eta oso kalitate onekoak denak Taxio Arribabalaga zinegotziak azaldu moduan. Hauen artean hiru izan dira Lasarte-Oriakoak eta "Oso pozik gaude lehiaketa biek izandako harrerarekin" azpimarratzen zuen zinegotziak.

### 08 Jakoba Errekondo adituarekin solasean landareen inguruan:

Zabaleta auzoko lagunek antolatuta, Jakoba Errekondo adituarekin hitzaldia izan zen entzungai bertako lokalean. 30 bat lagun bildu ziren eta auzokideek euren zalantzak argitzeko aukera izan zuten landareen inguruko hainbat galdera eginez. Besteak beste, landareen berezitasunak, fotosintesiaren funtzioa, animali eta landareen arteko diferentziak etab. azaldu zituen berak dakien bezala; era simple, erraz eta ulerker batean. Entzuleak oso gustura egon ziren solasaldiak iraun zuen bitartean eta zinez eskertu zuten Jakoba Errekondoren presentzia euren bezalako kultur etxe xumean.

**04 LOKEko zilarrezko neskak:** LOKEko gimnastek azken asteetan, hainbat txapelketa izan zituzten. Udaberri txapelketan Euskal Ligan izan ziren infantil eta alebinetako taldeak. Naroa, Gabi, Nerea eta Haizeak osatutako, 2. postua lortu zuten uztaiekin egin zuten lanaren ostean. Alebin mailan, berriz, Landaberri taldeak 21. postua eta Sasoeta taldeak 15. postua lortu zuten.

arktoarekin saio irekia antolatu zuten Manuel Lekuonan. Dorleta Urretabizkaia aktorea Lasarte-Oriakoa da eta esparri askotan egin du lan, antzerkia, telebista... Kukukak gonbidatuta bere esperientzia ezagutzeko aukera izan zuten herritarrek.



**05 Santa Ana Pala txapelketaren hasiera:** XXXI. Santa Ana pala txapelketa lehen partida jokatu zen. Aurtengo edizioan hamalau bikotke parte hartu zuten. Xabi Etxezarreta eta Mikel Bardaji eta Jon Pagola eta Jesus bikoteen partidak XXXI. Santa Ana pala txapelketari hasiera eman zion.

**07 Maketa lehiaketako irabazleak La sociedad de los tercicos:** Herriko jaietako kartela hautatzeko egindako lehiaketaren irabazlea esateaz gain, V. Musika Maketa lehiaketako irabazleak ere jakin ziren egun berean. Horrela aurtengoan lehenengo saria La sociedad de los Tercos



**05 Dorleta Urretabizkaia aktorearekin saioa Manuel Lekuonan:** Kukua antzerki eta dantza eskolakoek euren X. urterena ospatzen jarraitu zuten. Ekimen berezian artean Dorleta Urretabizkaia

Gure lagun guztiei  
magiaz betetako urte berria opa dizuegu

# Jalgune



# Elkartea



Bekokale bidea 1 2. solairua • LASARTE-ORIA



## Hiru urtetan lehenengo aurrekontuak prest

**07** **2012 urteko aurrekontua:** Estitxu Alkorta zinegotziak 2012. urteko aurrekontuak Ogasun batzordean aurkeztu zirela jakitera eman zuen. "Hiru urtean onetsiko diren lehendabiziko aurrekontuak dira, baita agintaldi honetako lehenak" aipatzen zuen Alkortak honek duen garrantzia azpimarratuz. Sailak 23.406.332,38 euroko aurrekontua aurkeztu zuen, 2008an onetsitako aurrekontua baino %43,32 gutxiago. Horietatik 2.328.316,95 euro inbertsioetarako bidertuko ziren. Aurrekontuetan 720.784,85 euroko superabita zegoen eta honi esker, "iazko emaitza negatiboa orekatzea lortuko da". Lehenengoz herritarrei aurkeztu zitzaizkien kontuak.



**10** **LOKE, 25 urte kirolari emanak**  
LOKE, hasiera batean Michelin-en izenarekin izan bazen ere, urtez urte aritu da herriko kirola sustatzen eta txapeldun handiak sortzen. Urte guzti hauetan egindako lana eta ibilbidea erreparasatu nahi izan zuten argazki eta albiste galeria bat ipiniz Michelingo kirol-gunean. Gainera, LOKE-k ordezkartza duen kirolen erakustaldia egin zuten han bertan eta eguerdian, Aginaga sagardotegian bazkari ederra egin zuten kide guztiek.



eta jaiak antolatzeko elkarte eta herritar ezberdinekin burututako elkarlana izan zela. Elkarlan honen ondorio dira besteak beste, Sorgin Jaietako egitaraua eta udalarena batera joatea. Aldi berean, Okendo plaza jaietako erdi gune izatea nahi zuten udaletik. Aurten lehen aldiz bi txupinazo egingo zirela aurreratzen zen.

**09** **XXIV. squash txapelketa bukatuta:** Kinin Calvo irabazi zuen Iker Cañedoren aurkako finala. Amaitu zen martxoan hasi eta ekaina bitartean iraun zuen XXIV. Lasarte-Oriako squash txapelketa. Guztira 17 parte-hartzaile aritu ziren. Larunbateko finalekin bukaera ezinhobea eman zioten txapelketari eta aurtengo garailea, Kinin Calvo izan zen, txapeldunorde berriz, Iker Cañedo; finala 3-1 set emaitzarekin amaitu zen.



**09** **Maila ona Lasarteko XXIII. igeriketa sarian:** Urtero bezala, Buruntzaldea IKT taldeak antolatu du Lasarteko XXIII. trofeo. Guztira 140 neska-mutil eta lau talde aritu dira uretan ahalegin batean eta bide batez denek eduki dute ondo pasatzeko aukera. Benjaminetik hasita absolutuetaraino aritu ziren herriko igerilekuan euren denborak jaitsi asmoz lehian. Lau modalitateetan aritu ziren, tximeleta, bizkar, bular eta krol estiloetan hain zuzen, baita errelebo libreetan ere. Benjamin eta alebinek 50 metroko probak egin zituzten, infantil eta absolutu mailen artekoak berriz, 100 metroetan aritu ziren. Aurretik ordea, aurrebenjaminetik 25 metroko bi erakustaldi egin zituzten, urte osoan ikasitakoa euren senideei erakutsi asmoz.

**10** **Rocioko erromeria euriari aurre eginez:** El Rocioko amabirjinaren omenezko festa handia ospatu ohi da urtero mendekoste asteburuan, hau da, Pazko egunetik 50 egunetara. Lasarte-Orianean, Semblante Andaluz-eko fededunek egun hau ospatzen dute urtero, baina aurtengoan ez dute eguraldia lagun izan. Hala eta guztiz ere, Rocioko amabirjina herriko kaleetan barrena ibili da prozesioan eta egun osoan zehar ekintza ugari izan zituzten, tarrean, meza, dantza, kantua, brindisa... Jende ugari bildu zuen Rocioko erromeriak Okendo plaza inguruetan eta ez zen aspertzeko betarik izan.



bere desadostasuna azaldu zuen Pirritx eta Porrotx omentzeagatik "pailazoan ibilbide profesional arakastatsua txalotu arren, pertsona hauek zinegotzi izandako garaian hainbat gertaeren aurrean azaldutako jarrerengatik". PSE-EEK Pirritx eta Porrotx omentzeagatik guztiz kontra azaldu eta bere alderdia jaietako egitarau ofizialeko ekintzetan ez zuela parte hartuko azaldu zuen.

**13** **Udal aldizkaria etxean jaso zuten herritarrek:** Pablo Barrio alkateak eta Haritz Iparragirre prentsa arduradunak udal aldizkaria aurkeztu zuten. Aldizkaria elebitan eta printzipioz hiru hilabeteko kaleratuko zen. Udal informazioa lehen eskutik helaraztea du helburu aldizkariak. Gai garrantzitsu bezala Hiribusaren afera, Auzoetan landutako parte-hartze prozesua eta aurrekontuak. Aldizkari hau udaletxe barruko baliabideekin egin zela eta gastu bakarra inprentakoa izan zela azpimarratu zuten. "Egoera ekonomikoa zein den ikusita, eskura ditugun baliabideekin gauzatu dela azpimarratu nahi dugu".

**15** **"Disco eta taldekide berria ditugu" Makulu ken:** Bere lehen diskoa Makulu Ken taldeak Irui sagardotegian egindako festan aurkeztu zuen. Gainera taldekide berria dute: Bea Hurtado tekla-jotzailea. Seikote "beteranoak" grabatu ditu CDko abestiak, hainbat adiskidarekin laguntzarekin. Txus Carrascok batera jotzen du, Iñigo Superbiola Xuber-ek perkusioa, Unai De Andres Patxus-ek baxua eta Xabi Herrerak gitarra jo eta kantatu. Honekin batera, abeslariak Eider Ormazabal eta Itxaso Irazustabarrena dira. Gustura dira taldekideak emaitzarekin.

**17** **Intzako alebinak Udaberri finaleratik at:** Ezin izan zuten andoango Gazteleku menderatu. Udaberri Txapelketako ekialdeko finalerdia jokatu zen Michelingo pilotalekuan, alebin mailan. Intzako mutilek Gaztelekuren aurka neurtu zituzten indarrak eta tamalez, finaleratik kanpo geratu ziren 16-5 galdu ostean.



**11** **Festetan omenduak hiru:** San Pedrotarako hiru aste faltan desadostasuna herriko alderdien artean. Udal gobernua erabakiz omenduak, Jalgune elkarte, Danok Kide eta Pirritx eta Porrotx pailazoak zirela jakin zen. Udalak ofizialki izenak jakitera eman aurretik, EAJ-k

**13** **San Pedro Jaien egitaraua:** Egitarau oparoa aurkeztu zuen Taxio Arrizabalaga zinegotziak. Bertan izan zen Alaitz Mendizabal pate-hartze batzordeko burua aurten jaietan parte hartuko duten herritar eta elkarteetako kideekin batera. Berrikuntzen artean, jaietan udalak hiru talde omenduko tituela

## Udal ordezkariak San Juan suaren inguruan dantzan

**23** San Joan bezperako sua, desfilea eta zortzikoa Okendon: Gau magikoa omen da San Joan bezperakoa, oroitzapen txarrak erraustu eta horiek ahazteko gaua. Horretarako, Euskal Herriko bazter guztietan bezala, Lasarte-Orian ere ohitura den legez San Joan Sua piztu zuten. Bigarren urtez egin zuten sua jendez gainezka zegoen Okendo plaza eraberrituan, eta ez zen sorpresarik falta izan. Besteak beste, Pablo Barrio, Taxio Arrizabalaga, Estitxu Alkorta, Ana Isabel Prieto udal ordezkariak eta Juan Luis Murua parrokoa sokadantzan aritu baitziren. Horretaz gain, Erketz EDTkoek girotu zuten San Joan bezperako sua.



**18** Biladi Hadi proiektuaren erakusketa eta diska-liburuaren aurkezpena: Biladi Hadi brigadak 2010eko uztailean eta irailean palestinar lurretara egin zuen kultur elkartasun ekimena azaltzen duen "Biladi hadi, hamaika begirada Palestinara Euskal Herritik" proiektua aurkeztu zen Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean. Kafetegiko hormetan proiektua osatzen duten argazki erakusketa eta irudiak janzen dituzten eskal kulturaltzako idazle, kazetari eta hainbat eragileren iruzkin testuak izan ziren ikusgai. Aurkezpenen Arramazkako Aroa eta Aitzol Lasa izan ziren brigadako beste kide batekin batera.



**19** Aurrekontuen aurkezpen irekia: Herritarrentzat aurrekontuen aurkezpena egin zen Villa Mirentxun, udal ordezkariak 2012ko aurrekontuen nondik-norakoak azaldu zituzten herritarren aurrean. Lehen aldia izan da horrelako aurkez-

pen publiko bat egiten dela. Izan ere, herritarrek zalantzak argitzeko eta azalpenak eskatzeko tarte izan zuten.

**20** Musika eskolako ikasturte amaiera emanaldia: Lasarte-Oriako Udal Musika eskolako lagunek ikasturte amaierako kontzertuak eskaini zuten Manuel Lekuona kultur-etxean. Emanaldiari eskolako txikiak eman zioten hasiera. Jarraian, instrumentu desberdinak taularatu ziren bibolinak, gitarrak, flautak... Garai eta musikagile ezberdinen lanak entzun zituzten Manuel Lekuona kultur etxera hurbildu ziren herritarrek. Bigarren emanaldia egin zuten hurrengo egunean eta honetan, musika eskolako ikasleek gain, udal dantza eskolako kideen emanaldia ere ikusi ahal izan zen.

**21** SuBerri akordeoi orkestra aurkeztu dute: San Pedro parrokiako lokaletan herriko akordeoi orkestra berria aurkeztu zen SuBerri akordeoi orkestra. Elias Goikourriaren zuzendaritzapean 11 musikari egongo dira, guztiak Zero Sette akordeoi orkestratik ateratakoak.



**22** "Guraso elkartearen egotea umeengatik egin dezakegun inbertsio onena da": Bost kide izatetik hogeizatera pasa dira aurtan Sasoeta-Zumaburuko Guraso Elkartearen. Sasoeta-Zumaburu eskolako guraso elkarteak bigarren saria irabazi zuen Euskadiko Guraso Elkartearen Hezkuntza Jarduera Onen lehiaketan. Saria Zarautzen ospatu zen eskola publikoaren festa handiaren baitan eman zitzaizkien. Lan onari aitortpena izateaz gain, 1.000 euro jaso ditu elkarteak bere ekintzeara bideratzeko.



**22** Maialen Chourraut bikain nazioarteko txapelketetan: Maialen Chourraut herritarra indartsu zebilen. Cardiff eta Pauen izandako Slalomoko Munduko kopako probetan urrezko domina eskuratu zuen. Emaizta hauei esker, Munduko kopako lehen sailkatua zen eta Londreseko Joko Olinpikoetan domina lortzeko aukera handiak zituela azpimarratzen genuen.

**23** El Punto de Encuentrok irabazi du XXVI. Mossos Oroimenezkoa: ISU Leihok eta El Punto izan dira 2012ko Mossos memorialaren bi finalistak eta irabazle El Punto suertatu zen, 6-2ko emaitzarekin. Sorpresa izan zen aurtengo Mossos Oroimenezkoaren irabazlea, inor gutxik espero zuen El Punto osatzen duten jokalariek ISU Leihok menderatzea baina hala izan zen.

**24** Albokaren kontzertu ederra Brijidatarren komentuan: Ahots zerutiarra entzuteko aukera izan dute herritarrek Lasarte-Oriako Brijidatarren komentuan. Alboka Txiki eta Txepetxa abesbatzak aritu ziren, eta gaztetxoek beren ahots zoragarriekin ikuslegoa maitemindu zuten Osteen etorri zen Alboka Abesbatzaren kontzertua, eta ohitura gaituzten legez, primerako emanaldia eskaini zuten. 45 minutu inguru iraun zuen kontzertuan Jesu Dulcis, O Sacrum Convivium, Warum, Five Hebrew Love Song, Kito-lis, Ama, Only You eta Mutil txaleko gorri. Musikariak Amaia Dorronsoro piano-jole aparta eta Alba Carretero biolin-jolea izan ziren.



aniversario  
urteurrena  
**ALBOKA**  
Abesbatza  
LASARTE-ORIA

Urteberri on!

Gustuko al duzu abestea?  
Zatoz gure artera!



TEL.: 943 365145 / 943 363656 · LASARTE-ORIA



## San Pedro jaiak inoiz baino parte hartzailegoak

**28** Hasi dira San Pedro jaiak: Lasarte-Oriako pailazoek eman zioten hasiera 2012ko San Pedro jaiei. Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen "Maite Zaitut" kantua ondoen haur batek jaurti zuen txupina Udaletxe zaharreko balkoitik eta herriko festei hasiera eman. Haurrentzat Udalak prestatutako festen hasiera izan zen. Udaletxe aurrea jendez beteta zen eguerdiko 12:00 baino lehen Udalak haurrentzat antolatu zuen txupin jaurtiketa eta festen hasiera ikusteko. Arratsaldean bigarren txupina jaurti zuten Udaletxe berriatik Jalguneko eta Danok Kide elkarteko lagunek. Herritarrek landutako egitarauarekin, festan parte hartzera deitu zituzten herritarrek.



# Uztaila

## Saharatik iritsitako haurrei ongi etorria

**06** Ongi etorri beroa egin zitzairen gure artean uda pasatzera etorri ziren Saharako haurrei: Herriko sei familiek Saharatik etorritako zazpi haur hartu zituzten udan. Bi hilabeteko egonaldia egin zuten gure artean eta iritsi berrikan udalak harrera ekitaldi berezia egin zien Villa Mirentxun. Bertan izan zen Porrotx pailazoa bere magia eta umore onarekin haur zein helduak lilurutzen. Haurrek pozik hartu zituzten ere pailazoak ekarritako opariak. Egondia honetan Saharako umeei herrikoekin batera udako txokoetan parte hartu zuten eta ederki gozatu ere bai. Egondian umek medikutura eramane eta behar dituzten besteko zaintzak jasotzen dituzte.



**01** Festen azken eguna ekin-tzaz beteta: Txapelketaz betetako goiza. Ostadar SKT-ko bola-joko eta toka atalak antolatuta bolatokia bola-joko txapelketa eta udaletxe berriko arkupean toka txapelketa izan zen. Bestalde Sorgin guneko karpan Bakailao txapelketa egin zen eta etxeko txikienek haurren danborrada izan zuten. Herriko kaleetatik barrena ibili ziren eta azken txanpan euriari aurre egin behar izan zioten herriko gaztetxoek.



**10** PSE-EEko Lourdes Acevedo, Sanmarko komunitatean ordezkarri berria: EAJ, PSE-EE eta PP-ko udalak erakunde desberdinetan dituen ordezkariek baliogabetzeko aurkeztu zuten mozioa aurrera atera zen. Ondorioz Bilduko Nerea Sanchez Sanmarkotik kendu eta PSE-EEko Lourdes Acevedok hartu zuen Lasarte-Oriako ordezkaritza. Udaltzarrara oso jendetsua izan zen. Bertan egon ziren PPko Ramon Gomez, PSE-EEko Denis Itxaso eta Susana Corcuera besteak beste. Lasarte-Oria Bizirikeko kideak, Usurbilgo alkatea eta hainbat herritarrek aretoa bete zuten.



**07** I. Mus txapelketan Amantegi-Egaña bikotea garaile: Herriko ostalariek antolatutako I. mus txapelketaren finala izan zen Okendo plazan. Mikel Chanca eta Jose Carlos Palomares zein Gorka Amantegi eta Agus Egaña osatutako bikoteek jokatu zuten finala eta Amantegi-Egaña bikotea izan zen garaile partida luze baten ostean. Era berean, mus azkarreko txapelketa eta patata tortila lehiaketak ere antolatu zituzten. Patata tortila lehiaketara 11 hautagai aurkeztu ziren eta Mar Lojok irabazi zuen.

**07** Kaskante udaltzainak bi urrezko domina lortu ditu Europako Jokoetan: Lasarte-Oriako udaltzaina den Imanol Kaskante Tenerifen izan zen Suhiltzaile eta polizia IV. Europako Jokoetan. Indoor arrauketan parte hartu zuen banakako zein bikotetako proban eta bietan garaile izan zen.

**01** Bukatu dira San Pedro Jaia: Aurten ere zezen-suzkoak eta su-artifizialek itxi zituzten herriko festak. Hala ere, festan jarraitu nahi zuenak Goserren kontzertua eta DJ Bull-en emanaldiak izan zituzten ondoren.



**04** Kaleko ekintzak nagusi uztailako udal kultur egitarauan. Uztailako kultura egitaraua aurkeztu zuen Udalak. Kultura kalera ateratzeko ahalegina egin zuen kultura sailak eta besteak beste aurreratzen zuten bi zine pelikula eskainiko zirela Okendon eta bi kale antzerki ikusteko aukera egongo zela uda garaian. 8-14 urte bitarteko haurrentzat ikastaro desberdinak ere antolatu zituen Kultura Sailak auzoka haurrentzako eskaintza zabaltzeko.

**05** Ostadar Donosti Cupeko azken fasean: Herriko infantil taldeak bere taldeko lehen postua lortu zuen eta Intxaurrendoren aurka jokatu behar zuen final zortzirenetan.

**06** San Fermin festa Okendon egin zuten haurrek: Txokotako haurrek ederki pasatu zuten San Ferminak ospatzen. Txupina bota zuten Okendo plazan eta zezenen aurrean korrika egin zuten.

**13** Lasarte-Oria zenbakitan azterketa sozioekonomikoa aurkeztu zuen udalak Villa Mirentxun: Lasarte-Oriako egoera eza-gutu eta eragile ezberdinekin lan egiteko helburuak ezarri eta urteroko berrituko den azterketa izango zela jakitera eman zuen Udalak.

**13** Jazz, blues eta funk doinuak entzungai Kultur Kale Zikloaren barruan: Tutti Frutti taldearen kontzertua izan zen, Jalgiko terrazan. Jende ugari bildu zen bertara.

**Ustia** Garajea  
MEKANIKAKO ZERBITZU OROKORRA  
2013 zoriontsua opa dizuegu!  
Jaizkibel plaza 2, behea • Tel.: 943 370203 • LASARTE-ORIA

2013 zoriontsua opa dizuegu!

**Agate** ESTETIKAKO ARETOA

- Makillajea
- Manikura
- Pedikura
- Solariuma
- Laser bidezko Depilazioa *berria*
- Depilazio elektriko
- Aurpegiko tratamenduak
- Masajea *berria*
- Gel-eko azazkalak

Kale Nagusia 51 • Tel.: 943 370549 • LASARTE-ORIA

nahiz eta eguraldi txarrak eta asko gozatu zuten jazz estiloko musika entzunez trago edota pintxo batzuk hartzen zituzten bitartean. Eta "The Romanticos" izan zen Abend-en. Blues eta funk doinuak izan ziren nagusi.



**14** Iñigo Sevillano atletak zilarrezko domina lortu zuen Euskadiko txapelketan. Euskadiko txapelketa ospatu zen Durango eta bertan, Real Sociedad taldeko Iñigo Sevillano eta Jose Ramon Latorre herritarrek, ISN Navarra Atletico taldekoa, izan ziren. Iñigo Sevillanok brontzezko domina eskuratu zuen 110 m. hesi lasterketan. Jose Ramon Latorrek, aldiz, bi probatan parte hartu zuen, 100 m. eta 200 m. lasterketan. Lehengo proban kanporaketan geratu zen; 200 metroetan, berriz, finalean sartu eta zazpigarren izan zen.

**15** Parapetasonik festibala, 2.0 izan zen: Heavy metal eta Rock'n'roll doinuek girotu zuten Parapettoa. Herriko zein inguruko zortzi talde aritu ziren Parapetoko oholtza gainean ahots urratuz eta gitarrak kolpe sendoez ikusleak dantzan eta kantuan jotzen.

**15** Meategiko argi ilunak kabaret ikuskizunean. Zornotzako Markeliñe antzerki konpainiak kale ikuskizun berezia ekarri zuen Okendora. Kasu honetan meatzarien eguneroko gogorra azaldu zuten "Carbon Club" lanaren bitartez. Kabaret baten oholta gainean agertzen dira protagonistak eta umoreak eta musikak bere lekua hartzen du. Efektu ikusgarriak erabiltzen dira antzezlanean.



**16** Oriako bizilagunek Karmenak ospatu zituzten. Oriako egun handia da Karmengo Ama Birjinarena eta bizilagunek urtero moduan ospatu nahi izan zuten. Ohi bezala Meza Nagusia eta ostein herri hamaiketakoa izan ziren gerturatu ziren guztientzat.

**21** Muñoz-Baroja donostiarrak garaile Lasarte-Oriako III. tenis txapelketan. Santi Lorenzo herritarra izan zen txapeldunorde, 6-4 eta 7-5 galduta. Final handia eta 3. eta 4. postuak erabakitzeko partidak jokatu ziren kiroldegiko pistetan. 2012ko edizioa irabazlea Muñoz-Baroja izan da, bigarren, 2010. urtean ere bera gailendu baitzen. Hirugarren postua berriz, Raul Ramosentzat izan zen.

**22** XVIII. artisau azoka arrakastatsua. Santa Anaren omenezko XVIII. artisau azoka egun zen beste urte batez. Guztira 54 postu jarri ziren Okendo eta Antonio Mercero plazetan banatuta, horietatik 11 herrikoak. Bisitari ezagun bat izan zuen azokak. Telebistan horren ezagun bihurtu den David de Jorge sukaldaria omendu nahi izan zuen Cesar Bozal labangileak.

**25** Tomas Fernandez argazki bilduma sarean: Boris Nogales, Xabier Goitia kultura teknikaria eta Alberto Vazquez teknikaria izan ziren Manuel Lekuonan egindako agerraldian fondo digitalizatu aurkeztu zutenak. Tomas Fernandez argazki bilduma digitalizatu eta herritarren esku jarri dituztela jakitera eman zuten.

**26** Odriozola eta Martin garaile pala txapelketako finalean. XXXI. Santa Ana pala txapelketako finala jokatu zen. Partida luzea eta berdindua izan zen Odriozola-Martin eta Bardaji-Etxezarretak jokatutakoa. Azkenean, Odriozola eta Martin izan ziren garaile. Aurretik, hirugarren postua jokatu eta Arluziaga eta Garcia izan ziren irabazle. Etxezarreta harategikoei omenaldia egin zieten antolatzaileek.

**28** Etxe kolektiboak adinduentzat. Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzuak bere gain dituen pertsona adinduentzako etxebizitza tutelatuetan aldaketa sako-

na egin zuela jakitera eman zuten. Zerbitzua hobetzeko asmoz batetik etxeen kokalekua aldatu eta plaza kopurua handitu zutela adierazi zuten. Bestetik, izendapena aldatu dute hemendik aurrera etxebizitza kolektiboak izango dira aurreratu zuten.

**28** Oroimena eta musika Gorri Punk Fest jaialdian. Gorri Punk Fest jaialdia ospatu zen, Enrique Cob "Gorri" herriko gaztearen omenez. Okendo plazan punk talde desberdinak entzuteko aukera egon zen. Gorriren lagunak familiari eta neska lagunari oroigarriak eman zizkieten.



**28** Siglo XXn, Trifulca Posse. Taldeak kontzertua eskaini zuen Siglo XX-n Xpersion! antolatuta Udako Kultur Kalea zikloan. Hiru Dj batzen dituen musika egitasmoa da: DZ, Dj Pata eta Syr. DZ alegia, Esne Beltza taldeko kide lasarteoriatarra da. Trifulca Posseren kontzertuan hip-hop eta funk doinuez gozatzeko aukera egon zen.

**26** Santa Ana egun handia. Goizean, Brigitarren kaperan meza izan zen eta Santa Ana Karkaban dantzatu zuten Erketzekoek. Luntxa ere egin zen eta zerbait jan eta edan bitartean fandango eta arin arina dantzatu zituzten bertaratutakoek. Gauean berriz, ekaitza lehertu eta euri jasaren ostein egin zen parodia. Azken momentura arte itxaron behar izan zen parodia bertan behera geratzen zen jakiteko. Antolatzaileek aurrera egitea erabaki zuten nahiz eta atzerapenarekin hasi. Bustita baina gogotsu aritu ziren aktoreak. Akusatuar Patxi Xoxa Pilla eta Marta Zuriñe Izurrategi izan ziren. Krisi ekonomikoa izan zen gai nagusia.



**ADURIZ DE LASARTE S.A**

**2013 ZORIONTSUA OPA DIZUEGU !**



**BERTAKO FABRIKAZIOA**

**ODOLKIA- SOLOMO ONTZUTUA**

**TRIPAKIAK- SALTXTXAK**

**ETXEKO TXORIZOA**



**SOLOMOA BARATXURITAN**

**BASURDE BURUA**

**BASERRI PATEA**

**TXISTORRA**



# Abuztua

## Brontzeko bi neskak

**17** Londreseko Olinpiar Jokoetatik brontzeko domina-ekin itzulita, ongi etorria egin zitzaizen Maialen Chourraut eta Nely Carla kirolarietara: Lasarte-Oriako herriak, Pablo Barrio buru zuela, ongi-etorri berezia prestatu zien Chourraut ur bizietako piraguistari eta Nely Carla eskubaloi-jokalariari Londreseko Olinpiar Jokoetan lortutako balentria omentzeko. Bertan izan ziren besteak beste, herriko kirol talde eta elkarten ordezkariak eta Amalur trikitixa eskola zein Erketz Dantza Taldea ere. Bi kirolarietara gertu-gertutik sentitu zuten herritarren goxotasuna, euren brontzeko dominak erakutsi zituzten eta bertsoak, lore-sorta zein txapela jaso zituzten opari.



**02** Maialen Chourraut-ek brontzea eskuratu zuen: Egun handia izan zen abuztuaren 2a Maialen Chourraut-entzat. Gorputz eta arima haren atzetik ibili ostean, lortu zuen azkenean hainbeste desiraturako domina Olinpiar Jokoetan, brontze kolorekoa.

Aratsaldeko 15:52 zirela ekin zion ur-bizietako K1 mailako finalerdieri, eta bigarren denbora onena eginda (108.34 seg.), arazorik gabe igaro zen finalera.

Ordubete pasatxo igarota iritsi zitzaion hainbeste itxarondako momentua, Olinpiar Jokoetako finalari egitear zegoen dominengatik borroka egiteko eta Beijinggo 16. postuaren arantzatxoa atera nahi zuen barnetik.

Haize pixkatxo bat altxa zen finalaren aurretik eta igaro beharreko atek pixka bat mugitzen zirela ikusita, edozer gerta zitekeen. Herri guztia telebista pantailari begira zeukan, Chourraut

ezagutu edo ez, palakada bakoitzean ari ziren herritarrak bultzaka. Azkenean, 105.87 segunduko denbora eginenez, Fer frantziarra eta Fox australiarra soilik izan zituzten aurretik eta brontzea herrira ekarri zuen.

**11** Nely Carla Alberto eta Espainiako eskubaloi selekzioak brontzea eskuratu zuten: Herrian jaioa ez bada ere, azken zazpi urteotan Lasarte-Oriari bizi izan da Nely Carla Alberto eskubaloi jokalaria. Beraz, Maialen Chourraut herritarrenaz gain, Nely Carlaen brontzearen zatitxo bat ere lasarteoriatarra izan dela esan daiteke. Abuztuaren 11 izan zen egun handia, Hego Korearen aurka bi luzapenen ostean brontzeko domina eskuratu ostean 31-29ko emaitzaz.

“Guerreras Olímpicas” izenarekin ezagun egin dira emakumezkoen Espainiako eskubaloi selekzioako jokalariek, eta horietako bat izan zen Nely

Carla Alberto 29 urteko jokalaria. Parte-hartze handia izan zuen taldean, ezker hegalarri bai erasoan zein defentsan indarra eta oreka emanaz.




Olinpiar Jokoetan txapelketa oso ona egin zuen, horren erakusgarri finalen bertan bost gol sartu izana. Duena Espainiako selekzioak hautatzailearentzat jokalaria garrantzitsua izan zen Nely Carla, eta zelairan ez zegoenean bere taldekideek nabaritu egiten zuten haren hutsunea.

**28** Biyak Bat-ek urriaren 1etik 8ra luzatuko zen Zaharren omenaldia aurkeztu zuen: Astebeteko egitaraua aurkeztu zuen Biyak Bat elkarteak, gainera, euren 34. urteurrena ere ospatuko zuten.



## 18 Telleriatarrek 15 aldiz jaso zuten Igeldoko Harria:

Euskal Herriko plazetako harriak konplikatuenetakotari, Igeldoko Harriari, 10 altxaldi eman zizkion Urtzi Telleria herriko harrijasotzaile gazteak eta 5 berriz, Beñat Telleria txikiak. Erritmo handian hasi zuen lehia Urtzik eta lehen minutuan hiru aldiz berdindu zuen labainkorra den helduleku argirik ez duen harritzarra. 16 urteko Beñatek berriz, sekulako erakustaldia eman zuen horren gazte izanda Igeldoko harria maisuki maneiatzea lortuta. Irudian, Urtzi.



**BIYAK BAT**

2013 zoriontsua opa dizuegu!

Kale Nagusia 40 • Tel.: 943 363964 • LASARTE-ORIA

**EPEL**

2013 zoriontsua opa dizuegu!

**TXERRI-BELARRI GUTIZIAZKOAK ETA OLAGARROA**

**AUKERA IZUGARRIA**

- pintxoetan
- razioetan
- ogitartekoetan
- plater konbinatuetan

**Goikale 1 • Tel.: 943 362701 • LASARTE-ORIA**



# Iraila

## Muittu Manttangorri herriko autobus zerbitzua martxan

**04** Irailaren 10etik dabil hiribusa herriko auzoetan barrena: Irailaren 4an aurkeztu zuten Muittu Manttangorri Lasarte-Oriako hiri bus zerbitzua eskainiko duen ibilgailu dotorea eta ofizialki irailaren 10etik dago martxan. Manttangorri 21 bidaiari eta gurgildun aukli bat garraiatzeko lekua du eta 60 xentimo ordaintzen dituzte bidaiariak. Aurreko ostiralean, hilaren 7an, herritarrek Muittu Manttangorri probatu ahal izan zuten doan.

Muittu Manttangorri-ren aurkezpenean Udal ordezkariak eta TSSTko arduradunak izan ziren Okendo plazan eta zera nabarmentu zuen Pablo Barrio alkateak: "Manttangorri, manttangorri guztiak bezala, txikia da, gure herriko bidai txikiak egiteko; koloretsua, gure kaleetara alaitasun zantzu bat ekartzeko; bizia, batetik bestera mugituko baita herritarren bizitza erraztuz. Hitz batean, maitagarria, halaxe nahi dugulako gure Hiribusa, lasarteoriatarren zerbitzura beti".

**02** Beñat Telleria harrijasotzaile bikain Kintopekoen Euskadiko txapelketan. Beñat Telleria harri-jasotzaile gazteak bigarren postua eskuratu zuen Kintopekoen Euskadiko Harri-jasotze Txapelketan Zestoako plazan, irailaren 2an. Txapelketan 21 urte azpiko lau harri-jasotzaile aritu ziren lehian, Jagoba Otaegi 19 urteko aizarnarra, Joseba Esnaola 18 urteko berrobiarra, Beñat Telleria 16 urteko urrietarra eta Mikel Lopetegui 15 urteko zarauztarra.



Telleriak Jagoba Otaegi irabazlearen jasoaldi berberak egin zituen, baina 9 kilo gehiago pisatu zituen.

**07** Ane Labakak eskuratu ditu Basarri eta Lazkao Txiki Bertso Paper Sariak. Ane Labakak irabazi zituen Basarri eta Lazkao Txiki bertso paper sariketarak, Zarauzko Basarri "Zu" izeneko amodiozko bertso sortarekin eta Ordiziako Lazkao Txiki saria, aldiz "Zor diegu memoria" azokara jaisten ziren baserri-tar langile finei eskainitako bertso sortarekin.



**08** Amestutako debuta Futbolleko Kadeteen Euskal Ligan. Ostadarreko kadeteek bikain hasi dute denboraldia. Aurreko urteko balentria denok oraindik gogoa dugunean, Ostadar SKT-k debuta egin zuen lehenengoz Kadeteen Euskal Ligan.

Michelingo berdegunean jokaturako partiduan, Cultural Deportiva Durango izan zuen aurrean eta Javi Olaizolak entrenatzen duen taldeak erakustaldia emanda lortu zuen ligako lehen hiru puntuak eskuratzeko, erraztasunez, 4-0 irabazi ostean.

**20** Mugikortasun iraunkorren eta bizikleta festa: Europa osoan mugikortasun iraunkorren Astea ospatzen zela eta Lasarte-Oriako Udalak ere zerbait ekimen proposatu nahi izan zituen. Astearterako aurre ikusita zegoen bizikleta festa eta martxak ostegunean egin ziren eguraldi txarra zela eta bertan behera geratu ostean. Honekin batera mugikortasunaren parkea eta Segway zirkuia egiteko aukera izan zuten haurrek.

Mugikortasun astea garraio publikoa eta garraiobide gisa bizikletaren erabilera bultzatzeko baliatu nahi izan zuen Lasarte-Oriako udalak beste urte batez. Horrela izanda haurrek ederki pasa zuten Okendon izan zituzten ekintza eta joko ezberdinei esker.



**09** Guadalupeko Ama Birjinaren jaia. Extremadura Etxekoek hiru eguneko festa handia egin zuten. Besteak beste, karta-jokoa, bazkari zein afari herrikoiak, haur-jokoak, meza... izan dituzte gozagarri. Aurten berezia izan da lokal berrian egin dutelako festa.



**09** Juan Vicente Martín hirugarren itsas zeharkaldien ligan: Buruntzaldea IKT-ko Juan Vicente Martín igerilaria master+ mailako itsas zeharkaldien ligan barruan hirugarren postua eskuratu zuen Kontxako Badian, ligako azken proban.

**10** Zaballosen aurkako pintadak: Aurreko asteaz geroztik herrian hainbat pintada azaldu ziren PSE-EEko Jesus Zaballos bozeramalearen aurka alderdi honek salatu zuenez.

Alderdi sozialistaren Lasarte-Oriako bozeramaileak irainak salatu zituen eta Pablo Barrio alkatea eta Ana Isabel Prieto zerbitzuetaiko buruari eskatu zien hauek berehala garbitzeko.

**14** Osakidetzako langileak beltzez: Herriko anbulategiko langileak sektore publikoan ezartzen ari diren murrizketak salatzen protesta eguna hautatu dute ostirala. Uztailan hasi ziren ostiralean beltzez jantzita lanera joaten eta horrela jarraitzeko asmoa dute.

Soldaten murrizketak onartezinak direla salatzen dute eta zerbitzu publikoetan murriztuz, erabiltzaileek ondorioak pairatuko dituztela aipamarratu nahi dute protesta hauekin.

"Argi daukagu bajak direnean ez dituztela ordezkokoak jarriko eta zerbitzua nabarmen okerragoa izango dela" esan zuten.

**16** Gazte kontzertuak antolatu zituzten berriro. Aste Santuan lehenengoz gazte kontzertuak antolatu ostean, Steps Coop.-ikasle-empresako kideek bigarren antolatu zituzten gazte kontzertuak. Bestalde, Jalgin Glazz-ek jo zuten eta Abend-eko metal gauean Hell Damm eta Noxbleed izan ziren.



**19** Uistin kalean 30 aparkaleku egiteko proposatu du PSOEek: PSE-EEko Jesus Zaballos eta Martin Moreno zinegotziek prentsaurrekoa eman zuten Uistin kalean, bertan 30 aparkaleku berri sortzeko proposamenaren berri emateko. Zinegotziek azaldu zuten, Uistin kaleko eskuin aldeko espaloia estututa, nahikoa espazio lortuko litzateke aparkalekuak zeharka jartzeko. Horrela bi aldeetan zeharka aparkatzeko aukera izango litzateke eta 30 aparkaleku berri sortuko lirateke.

## Euskararen aldeko jaiak erantzun ederra izan zuten

**20** Ehunka lagunek jai-giroan osatu zuten bi kilometro eta erdiko ibilbidea. Lasarte-Oriak euskaraz bizi nahi duela esan zuten ozen larunbat arratsaldean. Euskotreneko geltokitik abiatuta, jai-giroan bi kilometro eta erdiko martxa jendetsu, koloretsu eta alaia egin zuten ehunka lagunek herriko kaleetan barrena. Kontseilua, AEK, Udala, Ttakun, Ostadar eta herriko ikastetxeen artean antolatutako martxaren bitartez euskararen erabilera bultzatu eta indartu beharra dagoela aldarrikatu zuten lasarteoriarrek. Bestalde, martxa bukatzean bost gailu zozketatu zituzten goizean Okendo plaza kamiseta erosi zuten artean: DVD irakurgailua, etxea garbitzeko xurgagailua, motxila, kafe-makina eta jaberik agertu ez zaion sukaldeko erroboeta.



**16** Martin eta Gomez lasarteoriarrek Baxurde krosetako podiumean: David Martin lasarteoriatarra izan zen Usurbilgo Baxurde krosaren irabazlea, 35:11 denbora eginaz, eta Raul Gomez hirugarrena, 36:10 denborarekin.

300 bat lasterkari ziren Usurbilgo Baxurde Txiki Triatloi Taldeak antolatuen lasterketako irteeran asko Lasarte-Oriakoak: Jose Luis Delgado, 38:30; Francisco Borja Romero, 40:03; Jon Altuna, 41:54; Francisco Javier Perez, 42:12; Alex Altuna, 42:50; Mikel Martinez, 44:09; Luis Enrique Gallego, 45:45; Asier Gorostegi, 46:07; Jon Piellago, 46:59; Mikel Calvo, 48:18; Javier Olazagoitia, 49:23; Zigor Iriondo, 50:17; Xabier Otaegi, 50:42; Aitor Ezkurdia, 51:10; Eduardo Rivas, 51:43; Gorka Alvarez, 52:29; Zigor Gallardo, 53:21 eta Peio Fadrique, 56:59.

## 26 Erantzun zabalaren greba orokorrak

ELA eta LAB sindikatuek deitutako greba orokorrak eragina izan zuten Lasarte-Orian. Eskolak ia hutsak eta denda asko itxita egon arren, Michelinen ez zen produkzioa gelditu.

Herrian manifestazioa Okendotik abiatu zen arratsaldeko 18:00etan. Goizeko 10:00etan herriko ezker abertzaleak deituta "banketxeak errudun" lelopean elkartzatzea egin zen Okendon. Goizean goizetik izan ziren pikete informatiboak herriko kaleetan. Michelinen "langileen aldetik jarraipen kaxkarra" izan zela nabarmendu zuten sindikatuetako ordezkariak. Herriko eskoletan jarraipena ia osoa izan zen. Sasoeta-Zumaburuen zerbitzu minimoak eskaini ziren baina ikasle gutxi zen eskolan. Landaberrin berriz, ikasgelak hutsik ziren.



**30** Ostadarrek irabazi zuten derbian. 1. Erregional mailan Texas Lasartearra erraz menderatu zuten Ostadarrek, 4-1 Zubietako instalazioetan. Joxean Beldarrainek entrenatutako Ostadar taldea Koldo Ageitosen Texas baino gehiago izan zen zentzu guztietan.

Ostadarrek baloiaren jabetza edukiz hasi zuten partidua, eta lehen ordu laurdenerako 1-0 jarri zen aurretik, gero berdinu egin zuten Texasek baina lehen zatia amaitzean zela aurreratu zen berriro Ostadar. Bigarren zatian beste bi gol sartu zituzten.



**27** Kukuka Antzerki eta Dantza Taldearen ikasturte hasiera. Antzerki eta dantza eskolako irakasle, ikasle eta lagunek parte hartu zuten kurtso hasierako ekitaldi berezian. Eskolan aurten 700 ikasle inguru arituko dira.

Emanaldi berezia prestatu zuten Kukukako irakasleek ikasleekin batera euren lan egiteko modua ikasle berri eta familiei erakusteko eta asmatu zuten, dantza eta antzerkia uztartzuz, Kultur Etxera hurbildu ziren ikusleei asko gustatu zitzaizkien eta emanaldia.



**21** Erdi Aroko azoka Okendon. Musika, antzerkia eta produktu ezberdinen postuak jarri ziren asteburuan Okendon.



**30** Mauka bila Stock azokan. Guztira 17 komertzio izan zuten postua Okendon Aterpea Merkatarien elkarteak antolatutako Stock eta saldoen azokan: herriko zortzik, Gipuzkoako seik eta Bizkaiko hiruk: "jende asko etorri da azokara, eta orokorrean ondo saldu dute", esan zuten Aterpeko Jenny Garciak. Euria egin bazuen ere jende asko ibili zen azokan.

**adats**  
ile-apaindegia

2013 zorionsua opa dizuegu!

Geltoki kalea 3  
Mobila: 600 523988  
LASARTE-ORIA

**kima**

URTEBERRI ON !

Kale Nagusia 44 • Tel.: 943 366197  
LASARTE-ORIA

**masaje-lekua**

Goyo Martin  
Xabier Carbayeda





# Azaroa

## Urteko nobela onenaren saria jaso zuen Harkaitz Canok

**13** Twist nobelari eman diote 2012ko Euskadi Saria: Urteko nobela onenaren Euskadi Saria eman zioten Harkaitz Cano idazleari, "Twist" lanarengatik. Sariak askatasuna emango diola adierazi zigun, "hurrengo urtean hilabete batzuetan nahi dudana idatzi ahal izango dut". Aspaldi idatzi zuen "Twist" nobela, 2011ko azaroan argitaratu zen, baina urtebetera presente zeukan oraindik, otsailean gazteleraz aterako denez azaroan Gerardo Markuleta itzultzailearekin berrikurtzen ari zelako batetik, eta literatur txoko eta solasaldi askotatik deitzen diotelako bestetik.



**03** Michelinen zelai berria: Michelingo berdeguneko belar artifizial berriaren gainean berriro futbol partidu ofizialak jokatu ziren. Jokalarien iritzi, itxura ona du zelai berriak. Bestalde, errugbian jokatzen zuloak egin dituzte futboleko area txiki inguruan errugbi makilak erraztasunez kendu eta jartzeko. Gainera, errugbi jokoko marrak ere margotu dituzte futbolekoekin batera. Kros herrikoian parte hartu zutenek ere erabili zuten berotzeko.

**05** Pablo Barrio alkateak karguan bere lehen urtea bete zuela balorazioa egin zuen. Oso intentsoa izan dela eta denbora laburrean lan asko egin behar izan duela adierazi zigun eta hainbeste maite duen idaztea alde batera utzita duela aitortu. Pozik dago herritarrek udala hurbilago sentitzen dutela esan dutelako auzoetan burrututako bileretan eta krisi ekonomiko garai zail honetan, lanean segi behar dela dio baina "egiteko moduak errotik aldatuta".



**07** Solaskide programa aurkeztu zuen Ttakunek: Ttakun elkar-teak Udalararen euskara departamenduaren laguntzarekin burutzen duen "Izan Bidelagun" solaskide programaren ikasturte berria aurkeztu zuten. Euskaldun berriak euskaraz mintzatu beharra izaten du eta horretan lagunduko duten bidelagunak eskatu

**04** Arkumea erretzen onenak: Joxean Lasa eta Juantxo Prietok lasarteoriatarrek jaso zuten azaroaren 4an Euskal Herriko I. Burruntzi lehiaketako txapela. Donostiako alde zaharreko Trinitate plazan burutu zen txapelketan beste bost bikoteren aurka lehiatu ziren eta epaimahaiak Lasa eta Prieto izemndatu zituzten txapelak.



zituzten. Iaz guztira 101 lagun izan ziren solaskide, 33 bidelagun edo euskaldun zahar eta 88 bidelari edo euskaldun berri.



**08** Gotzun Huegun eskultorearen "Ura eta Egurra" erakusketa Aquariumean: Egur tailari beste dimentsio eta garrantzia eman nahi izan dio Gotzon Huegun eskultoreak "Ura eta Egurra" Donostiako Aquarium-ean jarri zuen erakusketaren bidez. Egurrezko zazpi lanen artean ikusgarrienak tamaina handiko bi mural izan ziren. Azaroaren 8an ireki eta urtarrilaren 2ra arte egongo da zabalik erakusketa, Aquarium-eko Nautilus aretoan.

**08** Kaleratzeak Stop plataformaren hitzaldia: Kaleratzeak Stop/Stop Desahucios plataformak euren jardunaren aldeko babes gehiago eskatu zuen kultur etxeko hitzaldian. Plataformak sinadura bilketa bat ere burutu du hipoteken inguruko egungo araudian aldaketak eskatzeko. Gainera herriko bizilagun baten egoera salatu zuten.

Plataformak eskainitako datuen arabera, 2012. urteko lehenengo sei hilabeteetan, EAEn 2.661 kaleratze izan ziren eta Gipuzkoan 515. Herrialde honetan "egunero hiru etxe kaleratze" daudela salatu zuten.

**09** Langabeen Lasarte-Oriako plataformak herriko egoera larria salatu zuen: Lasarte-Oriako langabezia tasa Gipuzkoako altuenetarikoa da, %15etik gorakoa eta herriko hainbat langabetuk plataforma sortu dute.

Astean bitan elkartzen dira kultur etxean "egoera honi nola aurre egin aitzertzeko". 1350 langabe inguru zeuden herrian azaroan.

**09** Gazteria saila gaztelekuan: Gazteria saileko arduradun eta teknikariak kultur etxetik Gaztelekura joan ziren eta Jaizkibel plazako 13. zenbakian da zabalik Gazte Informazioako Bulegoa, astelehentik ostiralera, 11:00etatik 13:00ra eta 16:00etatik 19:00era.

Taxio Arrizabalaga batzordeburuak esan zuenez, "herriko gazte guztiengazko gune dinamikoak sortzea du lehentasunetako bat" eta horregatik garatu nahi du ondo Gaztelekuaren proiektua.

**10** Memoriaren Eguna: Lore eskaintza bat egin zen Udalen indarkeriaren biktimen omenez. Omenaldi xumean PSE-EE, EAJ, PP eta LOHP alderdietako udal zinegotziak izan ziren hainbat herritarrekin batera. Bilduk ez zuen parte

hartu, bere ustez indarkeriaren biktima guztiak "modu berean" tratatu behar direlako.

**11** Etxezarreta hirugarren Gipuzkoako Oilagor Ehiza txapelketan: Xabier Etxezarreta hirugarren izan zen Gipuzkoako Oilagor Ehiza txapelketan azaroak 11n eta bosgarren Euskal Herrikoan hilaren 18an. Leitzarango basoetan jokatu ziren bi txapelketa hauetan Truk zakurrarekin oilagor bana bota zituen bakoitzean. Gero Truk zakurra bigarren izan zen Nafarroaren Egunean herrialde honetako jokatu zen txapelketan eta urtarrean Espainakoan izango da.



**11** 196 herritar Behobia-Donostian: 196 herritarrek amaitu zuten Behobia-Donostia lasterketa. David Martin zazpigarrena izan zen, 1:03:55ko denbora bikaina eginez. Emakumezkoen artean, Yoana Gonzalez izan zen herrikoen artean azkarrena (1:33:59). Martienen atzetik, Raul Gomez (1:08:32), Raul Tejado (1:10:05), Jose Luis Delgado (1:10:39), Antonio Mazo (1:13:01) eta Ismael Hernandezek (1:14:19) lortu zuten ordu eta hamabost minutuko langa zaila gainditzea.

**12** Onartu dira 2013rako udal tasak: Udal gobernua proposatutako udal tasen igoera onartu zen PSE-Eeren abstentzioa eta PP-ren kontrako bozketekin. Bi alderdi hauek egindako zuzenketek ez zuten babesik lortu. Udal gobernua proposamenaren arabera udal berbitzua KPI aren eta BEZaren araberako igoera izango dute 2013an.

## Dinbi Banda garaile Gaztea-ren bideo-klip parodien lehiaketan

**28** Batukada taldeak irabazi du Gaztea Irratiaren parodia lehiaketa: Herriko Dinbi Banda batukadak Gaztea Irratiak antolatutako lehiaketa irabazi du "The Lazy Song" abestiaren bideokliparekin, azken fasean 2.003 boto lortuta 2.000 euro eskuratu dituzte. Herriko batukadak Gazteak martxan jarritako lehiaketan bi bideoklipekin parte hartu zuen: batek ez zuen lehen filtroa gainditu baina bigarrenak saria irabazi zuen. Isa Fernandez de Agirre batukadako kideak azaldu moduan, bideoak bi arratsaldetan grabatu zituzten eta oso pozik geratu ziren lortutako emaitzekin. Lehiaketaren bi faseetan izan zen lehen bost bideoen artean Lasarte-Oriako batukadarena.



**13** Udal batzar luzea: Udalaren irudia aldatzeko lehiaketa egiteko eta etxe kaleratzeen aurkako proposamenak onartu ziren azaroko ohiko udal batzarrean. Lasarte-Oriako udalaren irudi korporatibo berria aukeratzeko lehiaketaren saria 3.000 eurokoa izango da. Bestalde, Lasarte-Oriako banketxeen batek etxe kaleratzearen bat egin badu Udalak banketxe horrekin lanik ez egiteko erabakia hartu zen PSE-EEK egindako proposamena luze eta zabal eztabaidatu ondoren.

Lanik gabe dauden herritarrek udal zorrak gizarte lanarekin "ordaintzeko" PSE-EEren proposamena ere onartu zen, Plataformaren aldeko boto, EAJren abstentzioa eta Bilduren aurkakoarekin.

**14** Greba orokorrak erantzun ahula: Ia eraginik ez zuen izan, besteak beste, CCOO, UGT eta CNTk egindako greba orokordealdiak Lasarte-Oriako Michelin eta enpresa handietan ia langile guztiak zeuden euren lanpostuetan, eta normaltasunez lana egin zuten komertzio ia denetan, eskoletan eta udal bulegoetan. Langabetuen asteroko manifestazioan hautsi zen soilik normaltasuna, ertzantzak baimena eskatu baizien eta ordu laurdenez Hipodromo etorbidea moztu zuten.

**19** Osasunaren astea: XX. Osasun Astea burutu zen azaroren 19tik 22ra bitartean eta besteak beste, buruko arazoak, erlaxa-

zioa, garaian garaiko elikadura, bihotzekoak izateko arriskua eta gripearen aurkako txertoa jorratu ziren.

**20** Santa Zezilia eguna: modu ezberdinean ospatu zuten herriko musika taldeek. Udala Musika eskolako lagunek kalejira egin zuten.



**24** Literatur lehiaketako sari banaketa: Lasarte-Oriako Literatura lehiaketako sari banaketa burutu zen larunbatean 12:00etan Manuel Lekuona kultur-etxeako hitzaldi aretoan. Epaimahaikideek ez zuten lan erraza izan.

Helduen mailan adibidez, 150 poesia eta mikrokontakizun aurkeztu ziren. Gazte eta haurren atalean 400 baino gehiago, gehienak ipuinak eta euskaraz idatzitakoak.

**23** Parte hartzea sustatzeko postontziak: Alaitz Mendizabal parte hartze batzorde buruak zazpi udal eraikinetan jarritako postontziak aurkeztu zituen. Postontzietan

**17** Sentitu, pentsatu, ekin! disko berria aurkeztu zuten Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek. 25 urte bete ditu taldeak eta urte horietako jarduna bilzen duen disko berezia aurkeztu zuten Villa Mirentxun hainbat lagunekin. Euskadiko Orkestra Sinfonikoko kideek hartu dute parte diskoan.



jasoko ditu udalak herritarren iritzia, proposamen eta kezak besteak beste.

**25** Herritarrek ederki Donostiako Maratoian: 24 herritarrek bukatu zuten Donostiako Maratoia Anoetako estadioan. Azkarrena, Andoni Illarramendi izan zen 28. postuan, 2:39:17 denborarekin.

Hiru ordutik jaitsi ziren, Jose Luis Delgado, 02:43:12, Julen Ollokiegi, 02:53:34, eta Toño Perez, 02:57:12.

**25** Genero indarkeriaren aurkako eguna. Azaroren 19tik aurrera hainbat hitzaldi, filma emanaldi, antzerki saio eta ospakizun burutu ziren Zentro Zibikoak antolatuta eta 25ean, genero indarkeriaren aurkako egunean, Okendo plazan elkartu ziren emakumeak.

Udalak emakumeenganako indarkeriaren aurkako egunarekin bat egin eta emakumeen eskubideen aldeko adierazpen instituzionala egin zuen.





# ARRIESKALLETA ELKARTEA

2013 zoriontsua opa dizuegu!

Kale Nagusia 10 behea  
20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943-249305





# Abendua

## Euskararen Eguna gogoratu eta aldarrikatu zen eskoletan

**03** Hamaika ekintza Euskararen Egunean: Euskararen eguna zela eta Amaraun Klubak ipuin kontalarien saio berezia antolatu zuen arratsaldean 3 eta 8 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzat. Beraz neska mutilek milaka abentura bizi eta pertsonaia bereziak ezagutu zituzten ipuinen bitartez.

Herriko eskoletan ere ospatu zuten Euskararen Eguna, besteak beste, dantza eta kantak eskaini zituzten Landaberri zein Sasoea eskoletan: Argixoren eskutitza irakurri, Esne Beltza taldearen Euskaraz Bizi kantatu eta dantzatu edo muralak marraztu zituzten. Helduek ere izan zuten eguna ospatzeko aukera. AEKko ikasleek diaporama saio berezia izan zuten Ohiana Beltranekin eta gauean afaltzeko elkartu ziren Solaskide programa mako kideak, bide betez iaz egindako Mintzodromoko argazki ikusteko.

## 01 Haitz Mitxelena ederki Espainiako txapelketan.

Buruntzalde IKT-ko Haitz Mitxelena eta Itsaso Tolosa igerilariak Espainiako LV. Neguko Txapelketan izan ziren Palma de Mallorca-n azaroren 30etik abenduaren 2ra bitartean. Lehiatzen lehena Haitz izan zen eta bere marka hobetzea lortu bazuen ere ez zuen saririk lortu.



## 01 Neregatik eta nere lagunengatik jaialdi handia.

Abenduaren 3an urritasuna duten pertsonen eguna ospatzen zela eta abenduaren 1ean, Jalgune elkar-tekak hainbat ekitaldi antolatu zituen Lasarte-Orian: jaialdia, dantza eta ezkutaketa erraldoia besteak beste. "Neregatik eta nere lagunengatik" jaialdi handian dantza eta jolasak izan ziren protagonista. Kultur Etxean "Sofing, zapping eta jalgunerekin barre egin" jaialdian telebistako programa desberdinen parodiak eskaini zituzten elkarteko gazte eta begiraleek, ondoren kalejira egin zuten Okendo plazara Dinbi Banda Batukada taldearekin eta han "Neregatik eta nere lagunengatik" ezkutaketa erraldoiarekin jolasteko aukera izan zuten batetik eta dantzaldian dantza egin eta gozatzeko bestetik.

## 02 Sagasti judoka Gipuzkoako txapelkun.

LOKEko Asier Sagastik urrezko domina eskuratu zuen Gipuzkoako Senior txapelketan. Esteban Martinez eta Josu Olmosek hirugarren amaitu zuten lehiaketa. Asier Sagasti 90 kilo azpiko mailan bi borroka irabazi ondoren lortu zuen lehen postua. 73 kilo azpiko mailan, Esteban Martinezek hiru borroka irabazi eta bat galdu zituen. 60 kilo azpiko mailan Josu Olmos-ek bi norgegiagoka irabazi eta bat galdu zuen. Biek brontzezko domina eraman zuten etxera.

## 15 Ane Labakak Gipuzkoako hiru bertso paper sariketa nagusiak eskuratu ditu:

Abenduaren 15ean jaso zuen Ane Labakak Errenteriko Xenpelar Bertso Eskolak antolatzen duen Zapirain Anaiak Bertso Paper Saria. Urte bikaina izan da Lasarte-Oriako bertsolariarentzat, aurretik Basarri eta Lazkao Txiki sariak jaso baitzituen iraillean. XXIV Zapirain anaiak saria eta 700 euro "Lurretik mila metrora" sortarekin eskuratu du Ane Labakak.

Iraillean irabazi zituen Zarauzko Basarri eta Ordiziako Lazkao Txiki Bertso Paper Sariak. Basarri saria "Zu" izeneko amodiozko bertso sorta batekin eta Lazkao Txiki saria, aldiz "Zor diegu memoria" azokara jaisten ziren baserriar langile finei eskainitako bertso sortarekin.



## 03 Asteburu musikala Multimuskalaren bezperan:

Odolaren Mintzoa, Black Absinthe eta Azkaiter Pelox izan ziren Multimuskalaren X. edizioaren bezperatan Bar de Mau eta Mendi Kafe Rock aretoetan. Odolaren Mintzoa usurbildarrik eta Black Absinthe talde usurbildar-lasarteoriatarrik izan ziren Bar de Mauko oholta gainean. Denis, Bazako eta Patxiren Black Absinthe taldeak udaran Dualith Studios-en grabatutako "Decadence" diskoa aurkeztu zuten. Gainera Mendi Kafe Rock-en izan zen Azkaiter Pelox, "Zamburleiker" diskoa aurkeztuz.

## 03 Errege Kabalgataren antolatzaileren eskaera:

Errege kabalgata antolatzen duen Megaba (Melchor, Gaspar, Baltasar) elkarrekin ekitaldia hobetzeko herritarren parte hartzea eskatu zuen. Batetik bolondresak eskatu zituzten ekitaldian parte hartzeko eta bestalde iaz egin

bezala, haurrentzako marrazki lehiaketa martxan dela jakitera eman zuten. Marrazki bat hautatuko dute kabalgata iragartzen duen kartela izan dadin

## 03 Xabier Etxezarretaren Truk zakurra bigarren Nafarroako Txapelketan.

Xabier Etxezarreta harakin eta ehiztariaren Truk zakurrak Espainiako Oilagor Ehiza Txapelketan parte hartuko du urtarrilean, abenduaren 3an Nafarroako txapelketan bigarren izan baitzen. Etxezarretak aurretik adierazi zuen gogotsu zegoela zakurra, Euskal Herriko Txapelketan suertetik izan ez bazuen ere, Nafarroakoan aukerak izango zituela eta bere itxaropena bete da. Xabier Etxezarretaren lagun baten hiru oilagor bota zituen Nafarroako txapelketan eta bigarrena izan zen. Nafarroan hiru oilagor bota eta kontrol postura lehena iristen denak jasotzen du txapela eta bigarrenak heldu ziren Etxezarretaren laguna eta Truk, Nafarroaren Egunean jokatu zen txapelketan.

## 06 Olioia birziklatzeko sustapen kanpaina.

Sukaldean erabilitako olioaren bilketa bultzatzeko kanpaina abiarazi du San Marko Mankomunitateak Ekograsekin batera. Saritu egingo da etxeko olioia birziklatzen dituzten herritarrek. Hain juxtu, jatetxe batean bi lagunentzako

afari bat zozketatuko da parte hartzen dutenen artean. Edukiontzia laranjetan edo olio biltzeko furgonetan olio potioia uzten den aldiro lortuko da zozketan parte hartzeko aukera.



## 10 Arramazka taldeak Argilunpetan diskoa jarri du salgai

"Arramazkan beti gaude dantzan". Aitzol eta Aroa Lasaren Arramazka taldeak Argilunpetan izeneko diskoa kaleratu zuen, baina taldekide bati egin dioten ebakuntzaren ondorioz, udaberriko atzeratu dute 9 kantu jasotzen dituen lan autoproduzituaren aurkezpena. Dena den, Amalur Eskolan eta Gure Etxea tabernan salgai dago disko berria 10 eurotan erosi nahi dutenentzat. Arramazkak bideo klipa ere prest dauka zabaltzeko. Urte eta erdiko lanaren ondoren Arramazka taldeak uztaila eta abuztuan grabatu zuten Iruñean disko berria.

## 10 Ostadarrek bazkide kanpaina jarri zuen martxan:

Abenduaren 10etik 21era bitartean burutu zuen Ostadar elkarrekin bazkide kanpaina. Mendian edo txirrindularitzan federatu nahi zutenek ere aukera hori izan zuten.

Ostadar SKT-k kirol egitasmo honen partaide izatera gonbidatu zituen herritar guztiak, herritarren babesa ezinbesteko dela adieraziz.

## 10 Brancussi akademiako ikasle erakusketak:

Herriko Brancussi marrazketa eskolako ikasleek azken 12 urtetan egindako lanen bilduma jarri zen abenduaren 21era bitartean Manuel Lekuona kultur-etxeko kafetegian erakusketak eretoan. Beraz erakusketan ikasle bakoitzaren garapena ikus zitekeen eta baita lehiaketetan aurkeztutako eta saritutako lanak.

## Oroimen historikoaren aldeko Islada Ezkutatuak aurkeztu zen

**13** Islada Ezkutatuak oroimen historikoaren aldeko taldea aurkeztu zen Villa Mirentxun: Islada ezkutatuak Oroimen historikoa berreskuratzeko Lasarte-Oriako taldea sortu eta abenduaren 13an aurkeztu zuten Villa Mirentxun. Taldearen helburua aurreko mendeko historia eta gertarak jasotzea da, gerra garaian gertatutakoetan sakonduz. Harrera oso ona izan zuen deialdiak: Batetik Villa Mirentxuko aretoa bete egin zen eta bestetik herritarrek gauzak kontatzeko gogoia adierazi zuten.



**11** Ezohiko %6,51ko igoera izango da kirol tasan: Buruntzaldeko Udaletako kirol arduradunek kirol tasek 2013an jasanango duten ezohiko igoeraren azalpena eskaini zuten. Kirol tasa eskualdeko lau udalen artean adosten da eta orain arte irizpide orokorra KPIaren igoera izaten bazen ere, 2013an %6,51eko igoera izango dute BEZaren igoeraren ondorioz. Tasio Arrizabalagak azaldu zuenez, "Lau herrion zerbitzuetan izugarritzko igoera suposatu du. Hainbat eta hainbat kontratuetan %8a ordaintzetik, %21a ordaintzera".

**15** Asteburu multi-musikala: Asteburu musikala izan zen, batetik "Multi-musikala 2012" jaialdia antolatu zuten eta kontzertuak izan ziren herriko tabernetan, larunbat arratsalde-gauean eta beste bi ekitaldi aipagarri ere izan ziren, Zero Setteren 25. urteurreneko kontzertua larunbatean 19:30etan Kultur etxean, eta Albokaren Gabonetako kontzertua igandean 12:30etan Brigitarren komentuan.



Hainbat kontzertu eskaini ziren herriko tabernetan, horietatik asko herriko taldeenak, besteak beste Aurka, Makulu Ken edo The Garax ikusteko aukera izan zen. Arratsaldeko lehen orduetatik, kalean graffiti, rap musika

eta batukadarekin berotu zen giroa eta, ondoren, goizaldera arte luzatu ziren rock talde eta musika jartzaileen emanaldiak. Besteak beste Aurka herriko taldeak azken kontzertua eskaini zuten Avenida Kafetegian.

**11** Aurrekontu eta langabeziak aritu ziren udal batzarrean. Abenduko ohiko udal batzarrean, batetik 2013ko aurrekontuetaz aritu ziren; EAJ, Bildu eta Plataformak urtarriean aurkeztu nahi dituztela adierazi zuten eta orain aurkezteko PSE-EEren proposamena atzera bota. Bestalde, langabetuen egoera kaxkarra ere jorratu zen, Lasarte-Oriako langabetuen plataformak amaieran bere haserrea adierazi zuen, politikariei konponbideak eskatu zizkieten eta

alderdi politiko guztietako ordezkariak hilaren 20an egin zen bilera batera gonbidatu.

**13** Langabetuen plataformaren akordioa sinatu zuen udalak Udalak langabetuen plataformarekin sinatutako akordioaren arabera Eguberrietako Haur Parkearen sarrera eta tabernaren kudeaketa euren esku geratzen zen. Eta horrela plataformak bere ekimenetan erabili ahal izango du bildutako dirua.

Pablo Barrio alkateak sinatu zuen



akordioa langabetuen plataformako bi ordezkariekin. Honen bitartez Eguberrietako Haur Parkean sartzeko ordaindu beharreko euroa beraiantzat izango da baita tabernaren kudeaketarekin ateratako dirua ere.

**15** Atletismo denboraldi hasiera ona jubenilek: Atletismo denboraldiko urteko lehen saioan, abenduaren 15ean, LOKEko Itoitz Rodríguez, Maria Eugi eta Ane Galardi jubenik mailako Espainiako gutxieneko marketatik gutxira geratu ziren.

Itoitz-ek 2:01:67 denbora egin zuen 800 metroko proban. Maria Eugi eta Ane Galardik 60 metro proban aritu ziren: 8:19 eta 8:20 denborak egin zituzten hurrenez hurren.

**JATEN DUGUNA GARAI!**

**KALITATEA PREZIO JUSTUAN**

**2013 zoriontsua opa dizuegu! Urteberri on!**

**skerrick asko guregan jarritako konfidantzagatik**

**ORDUTEGIA**  
Asteartetik larunbatera 08:00etatik 14:00etara  
Astearte eta ostiraletan arratsaldez ere 17:00etatik 19:30era

**Nagusia 35 • Lasarte-Oria • Tel.:943 371946**  
**Mikeletes Pasealekua 8 behea 6 • (Antiguo) Donosti • Tel.:943 217698**





## Jendetza Okendon, Santo Tomas Egunean

**21** Santo Tomas Azoka arrakastatsua izan zen: Ttakunek antolatutako Santo Tomas Azokan jendetza bildu zen Okendo plazan hilaren 21ean. Urtero bezala sagardo, talo eta gaztainekin batera, dantza, bertso, gabon kantu eta umore ona nagusitu ziren herritarren artean.

Lasarte-Oriako talogileak jo eta su aritu ziren lanean eta urtero bezala herritarrek iladan itxaron behar izan zuten taloak jateko. Bien bitartean musika, gabon kantuak, bertsoak eta erromeria izan ziren Okendo plazan. Umeek taloak egiten ikasketo aukera ere izan zuten. Antolatzaileek adierazi zuten zuten aurreneko sekula baino jende gehiago eta giro hobea izan zen.

**16** Asier Sagasti, bigarren, Amaia Curiel eta Josu Olmos hirugarren Euskadiko Txapelketan: Emaizta onak lortu zituzten LOKEko judoek, Hernaniko kiroldegian jokatu zen Euskadiko txapelketan. Asier Sagasti, bigarren izan zen, eta bere denboraldi onarekin jarraitzen du. Josu Olmosek bi borrokaldira irabazi eta bat galduz brontzeko domina eskuratu zuen eta Amaia Curiel ere brontzeko domina lortu zuen.

**17** Ekogunean baratzak herritarren eskura: Zabalegi etxean, Galarreta auzoaren eta Miramonen artean dagoen Kutxaren Ekogunean 123 sail banatuko zaizkie hernaniar, lasarteoriatar eta donostiarrei baratze ekologikoa jartzeko eta hilaren 17,18 eta 19 eman zen bertan horren berri. Ekimen honetan lurra modu ekologikoa landu beharko da. Horretaz gain ekoiztutakoa ezingo da saldu, baldintza horiek jarri baititu Kutxa Ekoguneak. Izena emateko epea zabalik zegoela azaltzen zen.

**21** Atsobakarreko hobekuntza lanen kontratua aldatzea onartu zen: Ez ohiko udalbatzarrek Atsobakar egoitzan lanak burutzeko kontratua aldatzea onartu zuen. EAJ abstenuitu egin zen kontratua aldatzea honek zalantzak sortzen zizkiola azpimarratuta. Alderdiak baieztatu zuten Atsobakarreko hobekuntza lanen kontratua aldatzea onartzea presazkoa zela eta azkenean hori erabaki zuten.

**24** Olentzero Lasarte-Orian, Mari Domingi, Porrotx eta Xixukorekin batera. Lasarte-Oriako haurrek 24an arratsaldean Olentzerorekin egoteko aukera izan zuten. Loidi-Barreneko pilotalekutik iritsi zen Okendo plazara kalejira jendetsuak lagunduta.

Arratsaldeko 17:30ak aldera iritsi zen herrira eta Mari Domingi, Xixuko, Porrotx eta beste hainbat adiskidek lagundu zioten Okendo plazaraino: haur, guraso, Jalgune, Amaraun klub, Gazte klub eta Kua-drillategikoek, Dinbi-Banda batukadak eta Amalur trikiti eta pandero eskolako musikariek. Okendoko harrera eki-



taldian Alboka abesbatza, trikiti eta panderojoleek eta Earra! Bertso eskolako lagunek parte hartu zuten eta ondoren haurren eskutitzak jaso zituen Olentzerok.

**22** Jostailuak Lasarte-Oriatik Sahara. Behartsuen artean banatzeko jostailu bilketaren balorazio oso ona egin zuen herriko PSE-EEK. Euren ustez arrakastatsua izan da, ehun herritar baino gehiagok eraman zituzten jostailuak PSE-EEren egoitzara eta jasotako jostailu guztiak Caritas erakundearen esku utzi zituztela eman zuten jakitera hauek bana zituzten. Adierazi zuten jostailu kopuru handia jaso zenez, erdiak Saharako Tinduf-eko errefuxiatuen kanpamenduetara bidaltzeko asmoa zutela. "Beraz helburu bikoitza lortu dugu: hurbilekoei elkartzuna eta baita munduko beste herri batzuekin ere" esan zuen Jesus Zaballosek oso pozik ekimenaren arrakastarekin.

**22** Olentzerori bisita Amaraun klubekoek. Abenduaren 22an Olentzeroren etxea ezagutzeko aukera izan zuten Amaraun klubeko neska mutilak. Autobusean joan ziren 4 eta 7 urte arteko haurrak goizean eta arratsaldean itzuli.

**23** Presoak herriratzeko eskatuz flashmob erraldoia egin zuten Okendon. Okendo plazak urdin kolorea hartu zuen eguerdian. Guztira 200 lagun baino gehiago aritu ziren dantzan eta kantuan, presoak herriratzeko eskatuz egindako flashmob-eant. Harresi Guztien Gainetik herriko taldeak antolatu zuen ekimena, eta bertan izan ziren zuzeneko musika jarritz Xabi Solano eta Zigor DZ Esne Beltza taldeko kideak.



**31** Urteari agurra San Roken. Ostadarreko mendi sailak Ttakunekin batera urteari bukaera emateko ohitura berria nahi du sortu eta horrela gonbitea egiten zaie herritar guztiei urteko azken egunean goizeko 10:00etan San Roke basiliza ondoan aterpera gerturatu eta bertan hamaiketako egitea. Antolatzaileek denentzat txorizo egosia izango dela aurreratu dute beraz animatu.

### Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



**Lasarte-Oriako Udala**  
Euskara Batzordea



**EUSKO JAURLARITZA**  
**KULTURA SAILA**



**GFAko Kultura eta Euskara Departamendua**

**Argitaratzailea:** Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366 858, 943 371 448, G-20407557 **Legezko gordailua:** SS513/93 ISSN: 1134-0053 **Inprimategia:** Zeroa Multimedia, S.A. **Aleak zenbakiko:** 7.800 **Erredakzioa:** Nerea Eizagire, Jon Altuna Iza, Maider Azurmendi, Jon Altuna Egitegi **txintxarri@ttakun.com** **Publizitatea:** Arantza Artola, **publizitatea@ttakun.com** **Administrazioa eta banaketa:** administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# JOSE AIZPURUA UNANUE S.L. eraikuntzak



**2013 zorionsua opa dizuegu!  
Oso ondo pasa!**



- Igeltseritza orokorrean
- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Gremioen koordinazioa
- Barne erreformak

Nagusia 14 behea atzekoaldea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373879 • Mobila: 620 800186



Zuregandik hurbil

Tel: 943 37 78 68  
www.ventanasalcar.com

*Etorri gure denda berrira,  
Plaza Oriamendi, 2. (Lehengo Doble J)*

URTEBERRI ON!



[www.facebook.com/VentanasAlcar](http://www.facebook.com/VentanasAlcar)



Jarrai gaitzazu Facebooken!  
gure jarraitzaile artean,  
laister hasiko gara  
opariak banatzen

Me gusta



**Tel: 943 37 78 68**  
**tienda@ventanasalcar.com**  
**www.ventanasalcar.com**



Jarraitu hemen, [www.facebook.com/VentanasAlcar](http://www.facebook.com/VentanasAlcar)

**ERAKUSKETA**  
**Plaza Oriamendi, 2**  
**20160 - Lasarte-Oria**  
**Gipuzkoa · (Lehengo Doble J)**

**TAILERRA**  
**Ibaiondo, 4 erdisotoa 5-A**  
**20160 - Lasarte-Oria**  
**Gipuzkoa**



Aldaz hartz klinikak  
jai zoriontsuak eta  
Urteberri on

*2013*  
opa dizue

